

EUSKADIKO EROSKETA ETA KONTRATAZIO BERDEAREN PROGRAMA 2030



EUSKADIKO EROSKETA ETA KONTRATAZIO BERDEAREN PROGRAMA 2030



Argitaraldia:

2021eko azaroa

Argitaratzailea:

Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Saila
Ekonomia eta Ogasun Saila

Eusko Jaurlaritza

AURKIBIDEA

AURKEZPENA	06
1. EROSKETA ETA KONTRATAZIOAREN PAPER ESTRATEGIKOA	08
2. EROSKETA ETA KONTRATAZIO BERDEAREN IBILBIDEA ETA ETORKIZUNA EUSKADIN	10
3. IKUSPEGI ESTRATEGIKOA	16
3.1. Ikuspegia	16
3.2. Printzipioak	17
3.3. Erronkak	17
3.4. Helburuak	18
4. PROGRAMAREN HEDAPENA JARDUKETA-EREMUAK ETA ILDOA	17
5. 2025EKO EKINTZA-PLANA	27
6. KUDEAKETA-EREDUA	33
6.1. Gobernantza	33
6.2. Hedapena	35
6.3. Baliabide ekonomikoak	35
6.4. Segimendua eta ebaluazioa	37
ERANSKINAK	39
1. eranskina. Euskadiko 2020ko Erosketa eta Kontratazio Publiko Berdearen Programaren emaitzen laburpena	40
2. eranskina. Euskadiko 2030 Erosketa eta Kontratazio Berdearen Programa egiteko prozesua	44
3. eranskina. Bestelako euskal politiketan eta araudi sektorialean ezarritako eta programa honek lortzen lagunduko duen ingurumen-helburuak eta erosketa berdeko helburuak	47
4. eranskina. 2025 Ekintza-planaren ekintzak, adierazleak eta lotutako eragile arduradunak	50
5. eranskina. Euskadiko 2030 Erosketa eta Kontratazio Berdearen Programara atxikitzeko dokumentua	54



Arantxa Tapia

**Ekonomiaren Garapen,
Jasangarritasun eta Ingurumen sailburua**
Eusko Jaurlaritza

Eusko Jaurlaritza Europako administrazio aitzindarietako bat da Erosketa eta Kontratazio Publiko Berdearen ezarpenean; izan ere, hori da produkzio- zein kontsumo-patroiak eraldatzeko zeharkako tresnetako bat ingurumenari dago-kionez jasagarriak diren lehiakortasun eta berrikuntzako ereduetan.

Erosketa eta kontratazio publiko berdea sustatzeko estrategia duela 20 urte abiarazi zen, Garapen Iraunkorraren 2002-2020 Euskal Ingurumen Estrategian txertatuz eta euskal enpresa-sektorearekin lan eginez; horrela, ingurumen-ezaugarriak onenak dituzten produktuen eta zerbitzuen eskaintza eta eskaria koordinatzen da. Eusko Jaurlaritzaren konpro-misioa Gobernu Kontseiluaren lehenengo akordioarekin indartu zen 2008an.

Azkenengo urteotan, aktiboki lan egin da euskal administrazio desberdinen inplikazioan eta horien erosketa eta kontratazio publiko berde-arekiko konpromisoan. Eta esfortzu hori guztia aitortu egin da, Euskadik Estatu Batuetako SPLC (Sustainable Purchasing Leadership Council) antolakuntzak ematen dituen «Erosketa Jasagarrien Lidergorako 2020ko Sarietan» sari gorenari jaso duelako.

Erosketa eta kontratazio publiko berdea ezartzeko estrategia arrakastatsua izan da Eusko Jaurlaritzaren eta enpresa pribatuen lankidetzari esker, kontratazio publikoetan eskatzen diren ingurumen-irizpideak zehaztuz, hain zuzen ere, produktuen eta zerbitzuen 28 kategorietan. Hori, aldi berean, gure merkatuaren trakzio-elementua

izan da, euskal enpresak bere merkatuetan ingurumen-abantailak dituzten produktuak eta zerbitzuak eskaini ahal izateko baldintzetan egon ahal izatea erraztuz.

Dokumentu honetan, Euskadiko 2030 Erosketa eta Kontratazio Berdearen hirugarren programa aurkezten dugu. Programa berri hau lerrokatuta dago Europako ingurumen-politiken lehentasun estrategikoekin, baita bere hazkunde-estrategia berriarekin ere: Europako Itun Berdea. Era berean, Basque Green Dealean zehaztutako euskal ingurumen-politiken lehentasunak gartzten laguntzen du: ekonomia zirkularra, klima-aldaketa, trantsizio energetikoa, ingurune naturala eta biodibertsitatea.

Elementu nagusi gisa, programa berriak euskal enpresa-sektorearen rola eta protagonismoa indartzen ditu ingurumen-hobekuntzako eta ekoberrikuntzako estrategian, diseinu ekologikoa duten eta euskal enpresek bere merkatuetan duten lehiakortasuna hobetuko duten produktuen eta zerbitzuen eskaintza sustatuz. Ekonomia zirkularraren, energia-eraginkortasunaren eta naturan oinarritutako konponbideen printzipioak txertatzearen helburua da baliabide naturalen kontsumoa murriztea eta eskaintako produktuen ingurumen-kalitatea handitzea, horrela klima-aldaketari aurre egiten eta gure ingurune naturala hobetzen lagunduz.

Horrela, baterako ekintza publiko-pribatuaren onurak ez diote soilik administrazioari eragiten, eragin positiboa baitute sektore ekonomikoaren lehiakortasunean eta gizartearen ongizatean ere bai.



Pedro Azpiazu

**Ekonomia eta Ogasun
sailburua**

Eusko Jaurlaritza

Azkenengo urteotan, kontratazio publikoak rol nagusia hartu du kudeaketa politiko irmo eta eraginkorreko tresna gisa.

Erosketa eta kontratazio publikoa Europar Batasunaren BPGdren % 14 da eta, hasiera batean, bere eginkizun bakarra zen produktuak eta zerbitzuak eraginkortasunez lortzea. Aitzitik, kontratazio publikoari buruzko 2014ko Europako Zuzentzauek eta horien transposizioak, hau da, Sektore Publikoko Kontratuen 9/2017 Legeak erosketa eta kontratazio publikoaren rol estrategikoa aitortu dute, gizarte-, ingurumen- eta berrikuntza-politikak zein ETEak sustatzeko politikak ezartzeko babes-tresna gisa.

Eusko Jaurlaritzak aspaldi lan egin du ikuspegi honekin, euskal sektore publiko osoari lagunduz segurtasun juridikoa sortzen, adibidez, Eusko Jaurlaritzaren Kontratazio Publikoaren Aholkubatzordearen ekainaren 21eko 2/2018 Gomen-dioaren bidez; horren xedea kontratazio publikoko ingurumen-klausulak dira.

Ekonomia eta Ogasun Sailak aktiboki hartzen du parte Euskadiko Erosketa eta Kontratazio Publiko Berdeko Programen definizioan eta konprometituta dago hori euskal administrazio guztietara hedatzea errazten duten jarduke-

ta desberdinen ezarpenarekin. Nabarmendu behar dugu Kontratazio Publikoa Euskadin Plataformaren lotura kontratazio publiko berdearen neurketarekin; horri esker, erdietsitako lorpenen segimendua eta ebaluazioa sinplifikatu eta hobetu ahal izan dira.

Ildo beretik, azpimarratu behar da Erosketa eta Kontratazio Publikoak Garapen Jasangarrirako Helburuak (GJH) lortzeko egindako ekarpena. Nazio Batuen 2030 Agendak berariazko helburu bat jasotzen du erosketa publiko jasangarrietarako: 12.7. GJH. «Erosketa publikoko jardunbide jasangarriak sustatzea, nazio mailako politika eta lehenetsunekin bat egin ez». 2020an, Eusko Jaurlaritzak helburu honekin lotutako adierazlea kalkulatzeko lehenengo ekitaldian hartu zuen parte eta aktiboki parte hartzen jarraituko du kontratazio publiko jasangarria sustatzeko Europako zein nazioarteko ekimenetan.

Euskadiko 2030 Erosketa eta Kontratazio Berdearen Programa honetan, erronka hauek jasotzen ditugu: erosketa berdea ainguratzea esparru juridiko irmo batean eta Euskadiko kontratazio berdearen eraginak eta onurak ikusarazteko eta horien segimendua egiteko sistemak hobetzea.



01.

EROSKETA ETA KONTRATAZIOAREN PAPER ESTRATEGIKOA

Orain dela bi hamarkada baino gehiago, mundu osoko nazioek aitortu egin zuten ingurumen-narriaduraren eta gizarte-bidegabekeriaren arrazoi nagusietako bat produkzio- eta kontsumo-patroi ez-jasangarriak¹ zirela.

Jakinda gobernuek kontsumoan duten papera (Europar² Batasunaren BPGdren % 14) eta merkatan zein iritzi publikoan izan dezaketen eragin handia, herrialdeek konpromisoa hartzen dute 2002an «*Ingurumenean³ kalterik eragiten ez duten ondasunak eta zerbitzuak sortzea eta hedatzea sustatzen duten kontratazio publikoko politikak bultzatzeko*», hazkunde ekonomikoa ingurumenaren narriadurarengandik banatzen laguntzeko eta produkzio- eta kontsumo-patroi jasangarrietarako trantsizioa azkartzeko.

Prozesu hori babesteko, urte berean, Ekonomia Lankidetzak eta Garapenerako Antolakundeak (ELGA) bere kideei helarazi zien kontratazio publikoaren⁴ ingurumen-errendimendua hobetzeko

gomendioa eta, ildo beretik, 2003an, Europako Batzordeak, Produktuen Politika Bateratuari buruzko Komunikazioan, hauxe adierazi zuen: «*...Estatu Kideak animatzen ditu bere kontratazio publikoa ekologikoa bihurtzeko ekintza-planak egitera eta horiek publikoaren eskura jartzera.*»⁵.

Konpromiso horiei esker, **apurka-apurka, kontratazio publikoaren erabilera hedatu ahal izan da**, hain zuzen ere, bere eginkizun nagusitik, hau da, ondasunak eta zerbitzuak eskuratzetik modu zehatz, ekonomiko eta eraginkor batean erakunde publikoen eginkizunak egikaritzeko, **eginkizun estrategiko batera**, besteak beste, honako helburu politiko osagarri hauek lortzeko tresna gisa: klima-aldaketaren aurkako borroka; baliabide naturalen erabileraren eraginkortasuna, enpresa txiki eta ertainen garapena edo ekoberrikuntza, besteak beste.

Europar Batasuna liderra izan da prozesu honetan, zehazki, honengatik: 1) erosketa eta

¹ [Agenda 21, Nazio Batuen Ingurumenari eta Garapenerari buruzko Konferentzia](#), 1992.

² [Europako sei hilekoaren fitxa tematikoak: Kontratazio publikoa](#), Europako Batzordea, 2017.

³ [Johannesburgoko Garapen Jasangarriari buruzko Munduko Gailurreko Erabakiak Aplikatzeko Plana](#), 2002.

⁴ [Recommendation of the Council on Improving the Environmental Performance of Public Procurement](#), OECD/LEGAL/0311, OECD, 2002.

⁵ [Batzordeak Europako Kontseiluari eta Parlamentuari zuzendutako komunikazioa «Produktuen Politika Bateratua. Ingurumen bizi-tza-zikloaren kontzeptuaren garapena» COM \(2003\) 302 amaiera](#), Europako Batzordea, 2003.

kontratazio publikoa apurka-apurka txertatu da batasunaren garapen-helburuak lortzeko tresna gisa komunikazio eza zuzentaraua askotan; 2) baliabideak eta tresnak sortu dira horren ezarpenarako eta, bereziki, 3) kontratazioaren lege-esparrua bera erreformatu da, «*gastu publikoaren eraginkortasuna areagotze aldera, bereziki erraztuz enpresa txiki eta ertainen (ETE) parte-hartzea, eta kontratatzaileek kontratazio publikoa hobeto erabil dezatela ahalbidetzeko, gizarte-helburu komunak babesteko.*»⁶.

Horregatik, garapen jasangarrirako nazioarteko konpromisorik berrienean, hau da, Nazio Batuen Batzar Nagusiaren **2030 Agendan**⁷, erosketa publiko jasangarrietarako berariazko Garapen Jasangarrirako Helburu (GJH) bat ezarri egin da: **12.7. GJH.** «*Erosketa publikoko jardunbide jasangarriak sustatzea, nazio mailako politika eta lehentasunekin bat eginez*». Eta Europar Batasunak ere, bere hazkunde-estrategia berrian, hau da, **Europako Itun Berdean**⁸, kontratazio publikoa modu eredugarrian erabili behar du, batasunaren ekonomia bide jasangarriago baterantz bideratzen laguntzeko.

Erosketa eta kontratazioa zeharkako tresna bat da; bere garrantziagatik eta kontuan hartzen dituen ingurumen-, gizarte- eta ekonomia-alderdiak produktu, obra eta zerbitzuen biztaziklo osoan zehar, **zuzenean eta zeharka laguntzen du eraldaketa ekonomikoan eta zenbat GJHren lorpenean.**

Entitate publikoak ez dira merkatuaren erosketa-eta trakzio-ahalmen garrantzitsua duten bakarrak. Enpresa-sektoreak ere badu ekonomia eraldatzeko ahalmen handia, bai zuzenean, bai bere balio-katearen bidez. Horrela aitortzen du Europako Itun Berdeak, industria mugiarazi nahi duena ekonomia garbi eta zirkular baten alde. Helburua da bere jardueraren eraginak murriztea eta teknologia, produktu eta zerbitzu jasangarrien garapena hedatzea, horrela batasunaren egitura ekonomikoaren lehiakortasuna zein jasangarritasuna mantentzeko. Eraldaketa honetan, hornidura-prozesu erantzuleak berebizikoak dira.

Horregatik, koordinatutako lana funtsezkoa da, erosketa eta kontratazio publiko eta pribatuaren erabilera estrategikoaren eragina areagotzeko.

1. IRUDIA.
Kontratazio jasangarriaren balizko erkarpena GJHetan⁹



TARGET 12-7

PROMOTE SUSTAINABLE PUBLIC PROCUREMENT PRACTICES

⁶ Kontratazio publikoari buruzko 2014ko otsailaren 26ko 2014/24/UE Zuzentaraua, 2004/18/CE Zuzentaraua indargabetzen duena.
⁷ Gure mundua eraldatzea: Garapen Jasangarrirako 2030 Agenda. Nazio Batuen Batzar Nagusia, 2015.
⁸ Batzordeak Europako Parlamentuari, Kontseiluari, Europako Ekonomia eta Gizarte Lantaldeari eta Eskualdeetako Lantaldeari zuzendutako komunikazioa «Europako Itun Berdea» COM (2019) 640 amaiera. Europako Batzordea, 2019.
⁹ Ecoinstitut, *Sustainable Development Goals and Public Procurement* web-mintegitik [diapositibak], 2016/12/13, 10YFP SPP Programme.

02.

EROSKETA ETA KONTRATAZIO BERDEAREN IBILBIDEA ETA ETORKIZUNA EUSKADIN



Euskadi beti egon da **ekonomiaren zein gizartearen garapeneko eredu jasangarriarako trantsizioaren aurrealdean** kokatutako Europako lurraldeen artean, euskal testuingurura ekarriz nazioartean zein Europar Batasunean hartutako konpromisoak. Horren barruan sartzen da **kontratazioaren garrantziaren aitortpen goiztiarra, zehazki, produkzio- eta kontsumo-patroiak eraldatzeko tresna gisa**, ingurumenari dagokionez jasangarriak diren eredu lehiakor eta berri-tzaileetan.

Kontuan hartuta **sektore publikoaren erosketa-ahalmena eta horren ekintza eredugarriaren garrantzia**, erosketa eta kontratazio publikoan ingurumen-irizpideak txertatzearen konpromisoa apurka-apurka gehitu da Euskadiko plangintza estrategikoaren maila guztietan:

2002TIK 2007RA, INGURUMENARI DAGOKIONEZ JASANGARRIA DEN EROSKETA ETA KONTRATAZIO PUBLIKOA SUSTATZEKO OINARRIAK EZARTZEN DIRA

Garapen Iraunkorraren Euskal Ingurumen Estrategiak (2002-2020) helburu gisa ezartzen zuen honako hau: **«Irizpide ekologikoak txertatzen dituen erosketa publikoen politika bat sustatzea»**¹⁰. Helburu horrekin, Eusko Jaurlaritzaren ingurumen-kudeaketako Ihobe sozietate publikoa hasten da **baliabideak sortzen eta truke-taldeak ezartzen**, euskal administrazioen kontratazio publikoan ingurumen-ikuspegia txertatzea errazteko. Horrez gain, enpresa-sektorearekin lan egin du, **eskaintako produktu zein zerbitzuen ingurumen-kalitatea hobetze aldera**.

Eskaintza eta eskariaren arteko koordinazio goiztiarra, batez ere, erosketa eta kontratazio

¹⁰ Garapen Iraunkorraren Euskal Ingurumen Estrategia 2002-2020 - Ingurumen Esparru Programa 2002-2006. Eusko Jaurlaritza, 2002.

publikorako ingurumen-irizpideen lanketan, Euskal Autonomia Erkidegoan hedatutako estrategiaren elementu bereizgarria da, aitzindaria izan delako Europan.

2008TIK 2014RA, EUSKO JAURLARITZAN KONPROMISOA FINKATZEN DA

Erosketa eta kontratazio publiko berdea Euskal Autonomia Erkidegoko **segidako Ingurumen Esparru-programetan jarduketa-ildo** gisa txertatzeak kontratazio publikoaren paper estrategikoa indartzen eta baieztatzen du Euskadiko jasangarritasun-helburuen lorpenean. Hori Euskal Autonomia Erkidegoko administrazioaren zein horren sektore publikoaren kontratazioan gizarte- eta ingurumen-irizpideak eta bestelako politika publikoak txertatzeari buruzko **Gobernu Kontseiluaren 2008ko Akordioaren** onespenean zehazten da. Horrez gain, apur bat beranduago, 2011-2014 **Erosketa eta Kontratazio Publiko Berdearen lehenengo Programaren** onespenearekin zehazten da; horri esker, «erosketa berdea» hitzaldi politikoan sartzen da eta kontratazioaren ingurumen-izaerako helburu zehatzak ezartzen dira Eusko Jaurlaritzarentzat.

Foru zein toki erakundeak ez dira atzean geratzen eta bere lizitazioetan jasangarritasun-irizpideak txertatzean aurrera egiten dute, zehazki, bere 21 Agenden bidez eta ingurumen-kudeaketako sistemen bidez.

Aldi horretan, merkatuarekiko koordinazioan, erosketa berdeko irizpideak zehazten jarraitzen dira; horren inguruko **prestakuntza indartzen da** eta entitate publikoentzako **babes-zerbitzu pertsonalizatu bat** ezartzen da.

Gainera, euskal sektore pribatua, nagusiki, Basque Ecodesign Center-en bidez, mugiarazten hasten da, enpresen balio-kate osoaren ingurumentrazioa areagotzeko, ingurumen-araudia betetzetik harago joanez, ingurumen-hobekuntzak sustatzeko enpresen ingurumen-kudeaketan, erosketetan eta zerbitzu korporatiboetan, baita bere negozioan ere.

2015ETIK 2020RA, EROSKETA ETA KONTRATAZIO BERDEA EUSKAL SEKTORE PUBLIKO OSOAN INDARTZEN DA

Azkenengo aldi horretan, **jauzi kualitatiboa** eman da erosketa eta kontratazio publikoaren **erabilera estrategikoan**.

Batetik, kontratazio publikoari buruzko 2014ko Europako zuzentarauak¹¹ eta horien Estatuko araudirako transposizioak, Sektore Publikoko Kontratuen 9/2017 Legean, legegintza-esparru mesedegarri bat sortzen dute, erosketa eta kontratazio publikoaren erabilera estrategikoa eskatzen duena. Horrela, 9/2017 Legeak berak haxe aipatzen du bere hitzaurrean:

*«Lege honetan kontratazio publikorako ezartzen den lege-sistemak [...] lortu nahi du **kontratazio publikoa tresna gisa erabil dadila honako arlo hauetako Europako eta nazioko politikak ezartzeko: gizarte arloa, ingurumena, berrikuntza eta garapena, enpresa txiki eta ertainen sustapena eta lehiaren defentsa. Gai horiek guztiak legearen egiazko helburuak dira [...]**»*

Bestetik, Europar Batasunean bezalaxe, erosketa eta kontratazio publiko berdearekiko konpromiso politikoa indartzen da, **babes-tresna gisa txertatzen delako Euskadiko garapen jasangarriko politika eta estrategia gehienetan** eta produktu, obra eta zerbitzu zehatz batzuen erosketa berdera behartzen duen araudia zehazten delako.

Hala, 2016an, **Euskadiko 2020ko Erosketa eta Kontratazio Publiko Berdearen bigarren Programa** onetsi zen, bere irismena hedatzen duena Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorretik **Euskadiko sektore publiko osora**. Halaber, % 50eko erosketa berdeko helburua finkatzen du (lizitazioen kopuruan eta horien bolumen ekonomikoan) lehentasunezko produktu, obra eta zerbitzuen 20 kategoriatarako.

¹¹ 2014/23/UE Zuzentaraua, 2014/24/UE Zuzentaraua eta 2014/25/UE Zuzentaraua.

Horri esker, erakunde publikoen talde bat ezarri ahal izan da, konprometituta daudenak erosketa eta kontratazio publikoa bere jasangarritasun-helburuak lortzeko baliatzearekin. Hori egin da, programarako atxikipen formalaren bidez; zehazki, maila, mota eta tamaina guztietako 38 erakunde atxiki ziren guztira 2020ko amaieran eta, gainera, aurrera egin da ingurumen-irizpideak euskal lizitazioetan txertatzeko.

Ekonomia eta Ogasun Sailak berak burututako jarduketak ere mugari bereziki nabarmena izan dira azkenengo urte hauetan erosketa berdea bultzatzeko. Eusko Jaurlaritzaren Kontratazio Publikoaren Aholku-batzordearen ekainaren 21eko 2/2018 Gomendioaren helburua kontratazio publikoko ingurumen-klausulak dira eta, hori egiteaz gain, lankidetzaz honek Kontratazio Publikoa Euskadin Plataforma kontratazio publiko berdearen neurketarekin lotzea erraztu egin du, lortutako aurrerapenen ebaluazioa eta segimendua sinplifikatuz.

Hala eta guztiz ere eta abian jarritako jarduketak gorabehera, 2020ko ekitaldian lehenetsitako kategorietarako lortutako ingurumen-izaerako ehunekoa % 37koa eta % 35koa da¹² kopuruari eta bolumen ekonomikoari dagokienez, hurrenez hurren. Horrenbestez, ez da lortu ezarritako helburua.

2030ERA ARTEKO HURRENGO ETAPA HONETAN, KOHERENTZIA POLITIKOA AREAGOTU NAHI DA ETA EROSKETA ETA KONTRATAZIO BERDEAREN EZARPEN SISTEMATIKOA FINKATU

Kontuan hartuta gaur egun arteko ibilbidea, egungo testuinguru politikoa eta ekonomikoa eta gizarte eta ekonomia dinamiko, eraginkor, erresiliente eta jasangarri bat lortzeko gaintitu beharreko erronkak, hurrengo etapa honetan, esfortzuak honetan zentratuko dira:

- euskal ekonomia- eta ingurumen-politikarekiko koherentzia ziurtatzea,
- erosketa eta kontratazio berdearen ezarpen sistematikoa finkatzea euskal entitate publikoetan eta
- euskal enpresa-sektorea mugiaraztea, bere hornidurak erabil ditzan konponbide jasangarriak eskaintzeko eta, horrela, ingurumen-errendimendu zein lehiakortasun handiagoak uztartu ahal izateko.

Koherentzia politikoari erreparatuz, erosketa eta kontratazioa euskal ingurumen-politikaren hurrengo hamarkadarako **lehentasunezko hiru eremuetan laguntzera** bideratuko da, aldi berean Euskadiko garapen ekonomikoa gidatuz:

EKONOMIA ZIRKULARRA	Baliabide materialen erabileran eraginkorrak diren konponbideak hautatuz, bizitza baliagarri luzea dutenak eta bigarren mailako edo birziklatutako materialez osatuta daudenak, eta materialen gaikako bilketa zein birziklapena ziurtatuz.
KLIMA-ALDAKETA	Autosufizientzia, aurrezpena eta energia-eraginkortasuna sustatuz, baita energia alternatiboen eta berriztagarrien erabilera eta egokitzapen-neurrien aplikazioa ere, ingurune erresilienteak lortzeko eta kliman dugun eragina murrizteko.
INGURUNE NATURALA ETA BIODIBERTSITATEA	Nekazaritza ekologikoaren, arrantza jasangarriaren, baliabide hidrikoen erabilera eraginkorraren, azpiegitura berdeen eta naturan oinarritutako konponbideen sustapenaren bitartez.

¹² Erosketa eta kontratazio publiko berdea Euskal Autonomia Erkidegoan. Jarduera-txostena: 2020ko ekitaldia. Eusko Jaurlaritza, 2021.

EUSKADIKO EROSKETA ETA KONTRATAZIO PUBLIKO BERDEAREN PROGRAMA - 2020

EROSKETA PUBLIKO BERDEKO MAILA EUSKADIN 2020KO EKITALDIAN

Kontratuen Euskal Erregistroan eskuratutako datuen arabera, Euskadin lortutako erosketa publiko berdeko maila, Euskadiko 2020ko Erosketa eta Kontratazio Publiko Berdearen Programa amaitzerakoan, hauxe da:

	Lizitazioak ingurumen-irizpideekin	Erosketa berdeko maila	Programak zehaztutako helburua
Lizitazio-kopurua	443	% 37	% 50
Zenbateko ekonomikoa (EUR)	163.817.885	% 35	% 50

Ehuneko horiek Euskadiko 2020ko Erosketa eta Kontratazio Publiko Berdearen Programan **lehenetsitako 20 kategoriei** egiten diete erreferentzia; hain zuzen ere, programak berak helburu kuantitatiboak ezarrita zituen kategoria horietarako.

EUSKAL ENPRESA-SEKTOREAREN PRESTAKUNTZA-MAILA EROSKETA PUBLIKO BERDEAREN AURREAN

Bestalde, erosketa publiko berdeak euskal enpresetan dituen onurak aztertuz, 2020an, ikusten da horiek ingurumen-irizpideak dituzten lizitazioen % 70en esleipendunak izan direla **kontratazioaren guztizko kopuruari** dagokionez. Horrela, erakusten da euskal enpresak badaudela prest ingurumen-irizpideak dituzten lizitazioei behar bezala erantzuteko.

	Euskal Autonomia Erkidegoko enpresa esleipendunak	Euskal enpresen ehunekoa
Ingurumen-irizpideak dituzten lizitazioen kopurua	825	% 70
Ingurumen-irizpideak dituzten lizitazioen bolumen ekonomikoa	326.735.094	% 62

Datu hauek interpretatzerakoan, aipatutako ekitaldian sortutako osasun-egoera kontuan hartu behar da.

1. Eranskinean, Euskadiko 2020ko Erosketa eta Kontratazio Publiko Berdearen Programaren emaitzen laburpena jasotzen da.

¹³ Datuak Kontratuen Euskal Erregistroan lortu dira, Kontratazio Publikoa Euskadin Plataforman kontsulta daitekeena (<http://www.contratacion.euskadi.eus>). 2020-01-01etik 2020-12-31ra bitarteko aldia eta Euskadiko Erosketa eta Kontratazio Publiko Berdea txostenean jasota. Jarduera-txostena. 2020ko ekitaldia. Ihobe, 2021.

Euskal ingurumen-politikaren lehentasun-
ezko hiru eremu hauek honako estrategia,

plan eta berariazko araudi hauetan zehaz-
ten dira:

EROSKETA ETA KONTRATAZIO BAKESTU BEHARREKO EUSKADIKO ESTRATEGIA, PLAN ETA ARAUDI NAGUSIAK:

Estrategiak eta programak

- Euskadiko 2030erako Ingurumen-esparru Programa (prestatzen ari da).
- Trantsizio Energetikoaren eta Klima-aldaketaren Plan Estrategikoa (prestatzen ari da).
- Ekonomia Zirkularren eta Bioekonomiaren Plan Estrategikoa (prestatzen ari da).
- Euskal Autonomia Erkidegoko 2030erako Biodibertsitate Estrategia.
- Euskadiko 2030erako Energia Estrategia.
- Euskadiko 2030erako Hiri Estrategia.

Planak

- EAEko Hondakinak Prebenitu eta Kudeatzeko 2030eko Plana.
- Euskadiko Garraio Jasangarriaren 2030eko Plana.

Araudia

- Euskadiko Ingurumen-administrazioaren Legea (izapidetzen ari da).
- Euskal Autonomia Erkidegoko Jasangarritasun Energetikoari buruzko 4/2019 Legea.
- Euskadiko Natura-Ondarea Kontserbatzeko Legea (izapidetzen ari da).
- Trantsizio Energetikoari eta Klima-aldaketari buruzko legea (egiten ari da).

Sektore publikoko erosketak eta kontratazio publikoari dagokionez, esfortzuak **euskal erakunde publiko guztiek bere erosketak-prozesuak modu adimentsuan erabil ditza-tela** lortzean zentratuko dira, baliabide publikoen erabilera eraginkorra sustatzeko, ingurumen-onurak areagotzen dituen inbertitutako euro bakoitzeko.

Azkenik, aurrekoaz gain, programa honek **enpresa-sektorea** mugiaraziko du, ingurumen-hobekuntzako, ekodiseinuko eta hornidura erantzuleko estrategien bitartez, ingurumenari dagokionez jasangarriak diren eta bere ingurumen-errendimendua eta lehiakortasuna

hobetzen dituzten konponbideak eskaini ditza-n. Inkestatutako euskal enpresen % 70ek baino gehiagok adierazi dute ekoberrikuntzako gai-etan aktibo izatea gaur egun baino garrantzitsuagoa izango dela merkatuak gidatzeko eta horien % 59k uste dute ekoberrikuntzak eta produktu eta zerbitzu berdeagoen eskaintzak laguntzen dutela edo berebizikoak direla bere markatuetan bereizgarriak izateko¹⁴.

Baterako ekintza publiko-pribatu honek ahalbidetuko du eragin handiagoa izatea Euskadiko garapen jasangarriko helburuen lorpenean, gure ekonomia, ingurumen eta gizartearen onurarako.

¹⁴ [Ekodiseinuak Euskal Autonomia Erkidegoko enpresei eskaintzen dizkien negozio-aukerak](#), Eusko Jaurlaritza, 2017.

PROGRAMA EGITEKO PROZESUA

Programa honen lanketa Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailak eta Ekonomia eta Ogasun Sailak sustatu egin dute, orain dela hamarkada bat baino gehiago gai honen inguruan hasitako lanari jarraitutasuna emateko helburuarekin. Hala eta guztiz ere, beste jauzi kualitatibo bat eman nahi du, sektore publikoa ez ezik, Euskadiko sektore pribatua ere hartzen duela-ko barne.

Bere garapenerako, honakoen **inplikazio eta parte-hartze ordainezinak** lortu ditugu: Eusko Jaurlaritzako sail eta sozietate publiko desberdinak; foru aldundiak; erosketa eta kontratazio berdean aktiboak diren tokiko erakundeak eta zenbait euskal enpresa.

Horiek guztiek azaldu dituzten **ikuspegi eta errealitate desberdinekin** eta, oinarrizko lan teknikoarekin batera, forma eman ahal izan zaio programari eta batera zehaztu ahal izan ditugu, bai 2030erako ikuspegi estrategikoa, bai 2025erako lehenengo ekintza-planerako ekintza zehatzak.

EUSKADIKO 2030 EROSKETA ETA KONTRATAZIO BERDEAREN PROGRAMA GARATZEKO ESKEMA

EGUNGO EGOERA ETA ERRONKAK	IKUSPEGI ESTRATEGIKOA	JARDUKETA-ILDOAK	EKINTZAK ETA SEGIMENDUA
Zein aurrerapen egin dira Europa mailan eta nazioartean? Zein puntutan gaude? Zeintzuk dira aurrera egiteko gaitutako behar ditugun erronkak?	Zein da Euskadiren handinahia trantsizio honetan? Zein ikuspegi estrategiko planteatzen dugu 2030erako?	Zein jarduketa abiarazi behar dira helburuak lortzeko eta identifikatutako erronkak gaitutzeko?	Zeintzuk dira ezarri beharreko ekintza zehatzak? Nola neurtuko ditugu aurrerapena eta lortutako emaitzak?
Nazioarteko ekimenik interesgarrienak identifikatzea, orain arte egindako lana balioztatzea eta gaitutako beharrekotako erronka berriak identifikatzea.	Epe ertainera zein luzera lortu beharreko helburuen, ikuspegiaren eta printzipioen definizioa.	Identifikatutako erronkak gaitutzea eta zehaztutako helburuak lortzea ahalbidetuko duten jarduketa-ildoen definizioa.	Programaren segimendu-sistemaren definizioa zein jarduketa-ildoen hedapena zehazten dituzten ekintza-planen garapena.

PROGRAMA GARATZEKO PROZESUAREN DENBORA-ESKEMA

1. Etapa	2. Etapa	3. Etapa	4. Etapa	5. Etapa	6. Etapa
2020ko maiatza/ekaina	2020ko ekaina-uztaila	2020ko uztaila-2021eko martxoa	2021eko martxoa-ekaina	2021eko ekaina-iraila	2021eko azaroa
Egungo egoera (elementu estrategikoak).	Parte hartzeko 1. fasea: Aurretzeko kontsultak Euskadiko Erosketa eta Kontratazio Publiko Berdeko eragile nagusiei.	Zirriborro-programa egitea.	Parte hartzeko 2. fasea: Sozializazioa inplikaturako gainerako eragileei.	Azken programa egitea eta izapidetzeko gainerako dokumentuak.	Behin betiko izapidetzea eta onespena.
Egungo egoera (ekintzak).					

2. Eranskinak Euskadiko 2030 Erosketa eta Kontratazio Berdearen Programa egi-


teko prozesua jasotzen du xehetasun handiagoarekin.



03. IKUSPEGI ESTRATEGIKOA

Euskadiko 2030 Erosketa eta Kontratazio Berdearen Programa Eusko Jaurlaritzak Euskadiren ekonomia-, gizarte- eta ingurumen-jasangarritasunerantz aurrera egiteko duen konpromisoaren barruan sartzen da.

Kontuan hartuta egindako bidea eta egungo testuingurua, Euskadiko erosketa eta kontratazio berderako ikuspegi estrategikoa hauxe da:



3.1. IKUSPEGIA

Euskal sektore publikoaren eta pribatuaren erosketa-potentziala erabiltzea bikaintasunez eta merkatuarekiko koordinazioan, garapen sozioekonomiko jasangarri baterako, aldi berean, ingurumenaren babesa, enpresa-lehiakortasuna eta pertsonen ongizatea areagotuko dituen Euskadin.

Programa honek ezarritako eta nazioartean zein Europan adostutako garapen jasangarrirako helburuak lortzeko eta susperraldi ekonomiko eraginkorra eta erresilientea lortzeko, nahitaezkoa da produkzio- eta kontsumo-patroien aldaketan aurrera egitea.

Erakunde publiko eta pribatuen hornikuntzak, kontsumitzaileak diren aldetik, eragin-ahalmen handia dauka merkatuarekiko, garrantzia ekonomiko handia baitu. Hortaz, programa honek euskal erakundearen erosketa- eta kontratazio-jardunbideak eraldatu nahi ditu, eraginkorta-

sunez erabil daitezzen, eta, lankidetzaren publiko-privatu optimo baten bidez, garapen lehiakor eta jasangarri bateranzko trantsizioan laguntzeko, ingurumena babesteko duena eta euskal gizartearentzako zein enpresentzako onurak ekarriko dituen.

3.2. PRINTZIOAK

Hauk dira programaren hedapena orientatzen duten printzipioak:

- **Koherentzia.** Erosketa eta kontratazioa Europan eta Euskadin ezarritako ingurumen-lehentasan politikoekin lerrotuta dago, babesa emateko eta bere helburuak lortzen laguntzeko.
- **Gardentasuna.** Erosketa berdea sustatzeko lan teknikoa zein lortutako emaitzak publikoki eta gardentasunez tratatzen dituzte alde guztiek.
- **Erantzunkidetasuna.** Antolakuntzek konpromisoa eta erantzukizuna hartzen dituzte bere gain ingurumen-jasangarritasuna txertatzeko bere erosketa eta kontratazio programan, operazio eta prozeduretan, horrela ezarritako helburuak lortu ahal izateko.
- **Lankidetzaren.** Programa alde guztien artean partekatutako eta koordinatutako lanean oinarrituta eraikitzen da, ezagutzaren eta informazioaren truke optimoa ziurtatzeko eta, horrela, elkarrekin aurrera egin ahal izateko, onura handiagoak lortuz.
- **Eraginkortasuna eta berrikuntza.** Baliabideen erabilera eraginkorra egiteko xedearekin, hedatu beharreko ekintzak eraginkortasunik eta praktikotasunik handienak lortzeko diseinatzen dira, baita berrikuntzaren hedapena sustatzeko ere,

bai merkatuaren konponbideetan, bai jarduteko moduan.

- **Sentsibilizazioa eta profesionalizazioa.** Programak lan egiten du inplikaturako alde guztiak, zuzendaritzatik hasi eta zerbitzu sustatzaileetaraino, erosketa berdearen garrantziaz jabe daitezzen eta ezagutzak izan ditzaten, erosketa eta kontratazioa estrategikoki erabiltzeko.

3.3. ERROKAK

Proposatutako ikuspegi hori lortzeko, programak zenbait erroka gainditu beharko ditu begirada integratzaile batetik eta bere paper estrategikoa indartzeko asmoarekin. Hauk dira egiaztatze-saioetan entitate desberdinekin identifikatutako errokak:

- Erosketa berdea ainguratzea esparru juridiko irmo batean eta Euskadiko lehentasunezko ingurumen- eta ekonomia-helburu eta politikentzako babesa ziurtatzea.
- Erosketa publiko berdea finkatzea euskal sektore publiko osoan, antolakuntzetan egiturazko eta berrikuntzako elementu bihurtuz.
- Erosketa berdea euskal sektore pribatuan ere ezartzea, balio-kateen bidez merkatuaren trakzioa egiteko duten potentzialagatik.
- Merkatu berdea kalitatezko euskal eskaintza lehiakor eta prestatu batekin garatzea, arreta berezia jarriz ETEetan.
- Segimendu-sistemak hobetzea eta kontratazio berdeak Euskadin dituen eraginak eta onurak ikusaraztea.

3.4. HELBURUAK

Ezarritako ikuspegi estrategikotik, identifikatutako erronketatik eta gaur egun erosketa publiko ber-

deak Euskadin duen egoeratik abiatuta, epe ertain zein luzera lortzeko **4 helburu** zehazten dira:

HELBURU ESTRATEGIKOAK	2025erako HELBURUA	2030erako HELBURUA
Programara atxikitako entitate publikoen kopurua	75	150
Programara atxikitako entitate pribatuen kopurua (entitate erosleak)	20	50
Garapen Jasangarrirako Helburua: 12.7.1 adierazlea (Ingurumen-irizpideak dituen kontratazioari buruzko 4.6ari dagokionez) ¹⁵	4,0	4,2
Erosketa publiko berdearen ehunekoa programan lehenetsitako kategorietan (eta kontratazio osoan) ¹⁶	% 55 (% 40)	% 75 (% 60)

Proposatutako helburuak betetzearekin, emaitza hauek espero dira:

ESPERO DIREN EMAITZAK		
Produktu, obra eta zerbitzu berdeen erosketarekin eta erabilera-ekin lotutako karbono-emisioen murrizketa-ehunekoa ¹⁷	% 16	% 26
Iturri berriztagarrietatik lortutako elektrizitatearen hornidura-ehunekoa atxikitako entitate publikoetan	% 70	% 100
Atxikitako entitate publikoen lizitazioetan nabarmen txertatutako ontzi birziklagarrien edo berrerabilgarrien ehunekoa	% 50	% 100
Errebalorizatuko diren obrako hondakinen ehunekoa (Tn)	% 80	% 95

¹⁵ Nazio Batuen Ingurumenerako Programak zehaztutako metodologiaren arabera kalkulatu da (<https://www.oneplanetnetwork.org/resource/spp-index-methodology-sdg-indicator-1271>). Adierazle honetan lor daitekeen gehieneko puntuazioa 5 da eta 4.6 baldin eta erosketa eta kontratazio publikoan ingurumen-aldagaia besterik ez bada txertatzen.

¹⁶ Ezarritako ehunekoak erosketa publiko berdeko mailari egiten dio erreferentzia, bai kopuruan, bai zenbateko ekonomikoan, programa honetan bertan lehenetsitako kategoriei dagokienez. Hala, parentesi artean adierazitako ehunekoak alderdi berari egiten dio erreferentzia, baina kontratazio publiko osoari dagokionez. Erosketa publiko berdearen neurketa, bai lizitazioen kopuruari dagokionez, bai zenbateko ekonomikoari dagokionez, Europar Batasunak ezarritako erosketa publiko berdeko mailaren neurketarekin bat dator.

¹⁷ Euskadiko Ekonomia Zirkularrerako Estrategia 2030ekin bat eginez ezarritako murrizketa-ehunekoa.

Programa honetan lehenetsitako produktu, obra eta zerbitzuen kategoriak hurrengo koa-droan jasotakoak dira. Irizpide desberdinak kontuan hartuz hautatu dira.

- Batetik, kategoria hauek, bere **eragin handilagatik**, garrantzitsutzat identifikatu egin dira **Euskadiko ingurumen-politika nagusietan** (ekonomia zirkularraren sustapenerako politika, klima-aldaketaren aurka borrokatzeko eta horretara egokitzeko politika eta ingurune naturala eta biodibertsitatea sustatzeko politika).
- Bestetik, Euskadiko 2030eko Erosketa Berdeko programak babestu behar dituen politika horietan **konpromiso zehatzak** daudelako.

- Eta azkenik, **sektore publiko gehienak kontratatzen dituen** kategoriak direlako. Hortaz, programa honetan aurreikusitako baterako ekintzak merkatuaren trakzioeragin positiboa izan dezake, bereziki, sektore batzuetan.

Ezarritako ingurumen-erabileren berarizko helburuez gain, hedatzen diren ekintzak egungo zein etorkizuneko euskal araudi sektorialean eta gainerako politiketan zehaztutako ingurumeneko eta erosketa berdeko helburuetan laguntzeko lerrokatu egingo dira. 3. Eranskinak gaur egungo helburu nagusiak jasotzen ditu.

LEHENTASUNEZKO KATEGORIAK

Erosketa eta kontratazioa eta horiekin lotutako zerbitzuak



Obra zibila
eta azpiegiturak



Ehunak



Argindarra



Ibilgailu astunak



Eraikuntza
eta urbanizazioa



Elikadura



Argiztapen publikoa



Ekipo informatikoak



Altzariak



Lorezaintza /
Espazio berdeak



Ibilgailu arinak




Inprimaketa-ekipoak

Programa honetan ezarritako helburuak lortzek aukera emango du erosketak publiko berdearen aurrerapen progresiboa eta errealista lortzeko eta, aldi berean, inflexio-puntu bat izango da.

2020ko ekitaldian, euskal enpresak ingurumen-irizpideak dituzten lizitazio guztien % 70en esleipendunak izan ziren; horren ondorioz, 1853 lanpostu sortu ziren.

Zenbatesten da, 2030erako, behin ingurumen-irizpideak dituzten lizitazioen % 60ra helduta, erosketaren guztizko kopuruari dagokionez, bai lizitazioen kopuruan, bai zenbateko ekonomikoan, Euskal Autonomia Erkidegoan, kontratazio publiko berdera 3987 enplegu lotzea lortuko dela.

EROSKETA BERDEAREN EHUNEKOEN AURREIKUSPENA (€)



04.

PROGRAMAREN HEDAPENA: JARDUKETA-EREMUAK ETA ILDOAK



Ezarritako ikuspegi estrategikotik, eta kontuan hartuta Euskadin identifikatutako erronkak, **5 jarduketa-eremu** jaiotzen dira eta, horietatik, **10 jarduketa-ildo** zehazten dira, Euskadiko 2030 Erosketa eta Kontratazio Berdearen Programa egituratzen eta artikulatzen dutenak.

Ildo horietako bakoitzerako, **bost urteko bi ekintza-planetan (2021-2025 eta 2026-2030)** hedatu beharreko ekintzak zehaztuko dira eta, horien bidez, programa epe ertain zein luzera hedatuko da. Dokumentu honek 2025eko ekintza-plana jasotzen du eta, hori bukatutakoan, 2030eko bigarren ekintza-plana egingo da (2026-2030).

2030ERAKO IKUSPEGIA



5 JARDUKETA-EREMU 2030ERAKO

1. Erosketa eta kontratazio berdea finkatzea Euskadiko politiken hedapenerako funtsezko tresna gisa.
2. Euskal sektore publiko eta pribatuaren erosketa eta kontratazio berdearekiko konpromisoan aurrera egitea.
3. Erosketa eta kontratazio berdea antolakuntzetako egiturazko eta berrikuntzako elementu bihurtzea.
4. Merkatu egokia edukitzea, kalitatezkoa eta prestatua.
5. Erosketa eta kontratazio berdearen aurrerapenak, lorpenak eta onurak ikusaraztea.



10 JARDUKETA-ILDO 2030ERAKO



21 EKINTZA 2025 EKINTZA-PLANEAN

1. Eremua:

Erosketa eta kontratazio berdea finkatzea Euskadiko politiken hedapenerako funtsezko tresna gisa

Euskal administrazioak eraginkortasunez erabili behar ditu funts publikoak, kalitatezko zerbitzuak eskainiz, aldi berean jarduera ekonomikoa, garapen jasangarria eta bizi-kalitatea sustatuko dituztenak Euskadin. Kontratazio publikoa funtsezko tresna bat da diru hori modu eraginkor, jasangarri eta estrategiko batean erabiltzeko¹⁸; izan ere, zerbitzu publiko askok kanpoko ondasunak erosi eta zerbitzuak kontratatu behar dituzte bere egikaritzapenerako.

Horretarako, berebizikoa da aitortzea, bai maila politikoan, bai legegintza-mailan, kontratazio publikoak duen papera Euskadiko garapen jasangarrirako helburuak zein susperraldi ekonomiko jasangarrirako helburuak lortzeko. Aitorpen hori sektore publikoaren maila guztietan egin behar da, hau da, Eusko Jaurlaritzatik hasi eta foru eta toki erakundeetaraino, esfortzuak lerrokatzeko eta lortu nahi diren emaitzak lortzeko. Gainera, horri esker, gerora, errazagoa da erosketa berdeko neurriak hedatzea barne-mailan, sustapen- eta kontratazio-organo guztietara hel daitezen.

Euskadin, Europako ekimenekin bat eginez, dagoeneko hasi da babes politiko hori eta gero eta ekonomia- eta ingurumen-estrategia gehiagok jasotzen dute erosketa eta kontratazio publikoa, horietan ezarritako jasangarritasuneko helburuak lortzeko tresna operatibo gisa. Gainera, Sektore Publikoko Kontratuen azaroaren 8ko 9/2017 Legeak berak hori babesten du. Hain zuzen ere, lege horrek Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/23/UE eta 2014/24/UE Zuzentarauak Espainiako antolamendu juridikora iraultzen ditu, kontratazio publikoaren erabilera estrategiko hori bultzatzen duena garapen jasangarriko helburuak lortzeko. Aurrekoaz gain, berariazko araudiak babesten du aurrekoa, besteak beste, Euskal Autonomia Erkidegoko Jasangarritasun Energetikoari buruzko 4/2019 Legeak, zenbait produktu- eta zerbitzu-talderen erosketa berdera behartzen baitu.

Lortu nahi den eragina lortzeko, erosketa eta kontratazio berdea txertatzen jarraitu behar da estrategia, plan, programa eta legeria nabarmenetan eta euskal sektore publikoaren maila guztietan. Horrela, bermatzen da eratorritako ekintzek Euskadiren 2030erako lehentasun- ezko ingurumen-helburuak lortzea babestea, egituratzea eta koordinatzea: ekonomia lehiakor eta zirkular baterako trantsizioa; klima-aldaketa arintzea eta horretara egokitzea eta ekosistemak babestea.

JARDUKETA-ILDOAK _1. EREMUA:

- L1. **Erosketa berdearen papera indartzea** tresna operatibo gisa euskal sektore publiko osoaren esparru politikoan eta juridikoan.
- L2. Erosketa berdea **Euskadiren ingurumen- eta ekonomia-lehentasunekin lerrokatzen dela bermatzea.**

¹⁸ Batzordeak Europako Parlamentuari, Kontseiluari, Europako Ekonomia eta Gizarte Lantaldeari eta Eskualdeetako Lantaldeari zuzendutako komunikazioa «Kontratazio publikoak Europan eta Europarentzat funtzionatzea lortzea» COM (2017) 572 amaiera. Europako Batzordea, 2017.

2. Eremua:

Euskal sektore publiko eta pribatuaren erosketak eta kontratazio berdearekiko konpromisoan aurrera egitea

Sektore publikoari zein sektore pribatuari eta, orokorrean, gizarteari balioa eranstean dieten produkzio- eta kontsumo-patroi jasagarriak lortzeko, funtsezkoa da entitateen kontsumoa, bere erosketak eta kontratazio-erabakien bidez adierazitakoa, euskal lehiakortasun ekonomikoan laguntzen duten eta ingurumenari dagokionez jasagarriak eta ekoberritzaileak diren konponbideetarantz mugiaraztea. Hori bereziki nabarmena da sektore batzuetan, zeinetan, bere pisuagatik, trakzio-ahalmen handia izan dezaketean.

Orain arte, ingurumenari dagokionez jasagarriak diren erosketak eta kontratazio politika nagusiak sektore publikoan zentratu egin dira. Hala eta guztiz ere, lortu nahi den eragina sortu nahi bada, euskal enprekin partekatutako eta koordinatutako estrategia bat ezarri behar da.

2020ko datuen arabera, aurreko Euskadiko 2020ko Erosketak eta Kontratazio Publiko Berdearen Programara boluntarioki atxikitako entitateen erosketak berdeko maila % 36koa eta % 34koa izan zen, hau da, gainerako sektore publikoa baino handiagoa¹⁹. Agindu argi bat edukitzeak kontratazio berdea barne-mailan hedatzea errazten du, sustapen- eta kontratazio-organo desberdinetara helduz. Horregatik, programa honetan, sektore publikoko gainerako entitateen eta sektore pribatuaren konpromiso formala lortzeko lan egingo da.

Sektore publikoan, mugiarazteko ekintzak Eusko Jaurlaritzaren sailletara zein gainerako sektore publikora bideratuta egongo dira, topaketa-espazioak ezarriz antzeko premiak dituzten erakundeen artean. Horrela, errealitate desberdinetatik modurik praktikoenean aurrera egin nahi da. Antolakuntza handien kasuan, hau da, Eusko Jaurlaritza, foru aldundi edo udalerrri handien kasuan, modu bateratuan jarduten badute, enpresa hornitzaileei mezu argia eta bateratua helaraztea lortzen da. Eta, tamaina txikiagoko toki erakundeen kasuan, erosketak ahalmen txikiagoa duten arren, aukera dago eskuragarri dauden baliabideak partekatzeko eta optimizatzeko eta bere erkidegoetan efektu garrantzitsua eragin ahal izateko.

Enpresa-sektorean, programa euskal enpresak mugiarazteko berariazko estrategia bat zehazten saiatuko da, bere tamaina gorabehera. Programa hau Basque Ecodesign Center-ek egindako lanean eta 2020 eta 2021 bitartean garatutako erosketak pribatu berdeko proiektu pilotuetan oinarrituko da.

JARDUKETA-ILDOAK _2. EREMUA:

L3. Euskal sektore publiko osoaren parte-hartzea lortzea.

L4. Euskal enpresak sentsibilizatzea eta mugiaraztea.

¹⁹ Erosketak eta kontratazio publiko berdea Euskal Autonomia Erkidegoan. Jarduera-txostena: 2020ko ekitaldia. Eusko Jaurlaritza, 2021.

3. Eremua: Erosketa eta kontratazio berdea antolakuntzetako egiturazko eta berrikuntzako elementu bihurtzea

Europako Batzordearen kontratazio publikoko estrategiak jasotzen duen bezala, Europar Batasunean kontratazioa hobetzeko lehentasunetako bat kontratazio publikoaren erabilera estrategikoa areagotzea da. Horretarako, konpromiso irmoa behar da maila politikoan eta zuzendaritza-mailan baina, horrez gain, gaitasun egokiak behar dira, aldaketa bultzatzeko eta irizpide estrategikoak sistematikoki txertatzen direla ziurtatzeko²⁰.

Sektore Publikoko Kontratuen 9/2017 Legeak berak jardunbide hori sustatzen du eta 1. artikuluan hauxe ezartzen du: «**Kontratazio publiko orotan, zeharkako eta aginduzko eran, irizpide sozial eta ingurumenekoak sartuko dira, kontratuaren objektuarekin zerikusia duten bitartean, sinetsita haiek sartzeak kalitatea-prezioa erlazio hobea emango duela kontratu prestazioan, bai eta efizientzia handiagoa eta hobea ere funts publikoen erabileran.**».

Eusko Jaurlaritzaren Kontratazio Publikoaren Aholku-batzordearen ekainaren 21eko 2/2018 Gomendioaren xedea kontratazio publikoko ingurumen-klausulak dira eta gomendio hori aurrerapauso bat izan zen berez, baina horrekiko lotura handiagoa eragiten duten ekintzak behar ditu.

Lortutako aurrerapenak gorabehera, oraindik ere bide luzea dago egiteke; izan ere, ingurumen-hornidura erantzulearen ezarpen sistematikoa erronka bat da oraindik ere.

Erosketa eta kontratazio berdea antolakuntzetako egiturazko kudeaketa- eta berrikuntza-elementua izan dadin, beharrezkoa da, batetik, erakundeetan kontratazioaren paperarekiko dagoen jarrera aldatzea, ingurumen-onura eta berrikuntza handiagoak ahalbidetzeko. Erosketa eta kontratazioa proaktiboa izan behar da eta ez erreaktiboa; horrekin batera, arazoak ikuspegi global batetik kudeatu behar ditu, premietan eta horiek asetzeko modurik eraginkorrenean zentratuz. Bestetik, inplikaturako langile guztien profesionalizazioa eta gaitasunen garapena eskatzen ditu, kontratazio-arduradunena ez ezik, besteak beste, zuzendaritza-talde, talde tekniko eta idazkaritzena ere bai. Halaber, beharrezkoa da kontratazio-prozesua etapa guztietan sistematikoki ezartzea ahalbidetzen duten prozedurak eta egiturak hedatzea, hau da, plangintzatik hasi eta segimendu eta kontroleraino, hori kontratazioko eta ingurumen-hobekuntzako sistema eta prozeduretan integratuz.

JARDUKETA-ILDOAK _3. EREMUA:

L5. Baliabideak hornitzea ezarpen sistematiko eta estrategiko baterako.

L6. Erosketa eta kontratazioko eginkizuna profesionalizatzea inplikaturako langile guztiengan.

²⁰ Batzordeak Europako Parlamentuari, Kontseiluari, Europako Ekonomia eta Gizarte Lantaldeari eta Eskualdeetako Lantaldeari zuzendutako komunikazioa «Kontratazio publikoak Europan eta Europarentzat funtzionatzea lortzea» COM (2017) 572 amaiera. Europako Batzordea, 2017.

4. Eremua: Merkatu egokia edukitzea, kalitatezkoa eta prestatua

Euskal enpresek badakite ingurumen-jasangarritasuna bere kudeaketa- eta negozio-estrategietan integratzeak dakarren balio erantsia, ingurumen-araudi guztia betetzen dela ziurtatzeko ez ezik, bere lehiakortasunerako eta merkatuan posizionatzeko ere bai. Izan ere, euskal enpresek uste dute, etorkizunean, ekoberrikuntzan aktibo izatea eta produktu eta zerbitzu berdeagoen eskaintza bat edukitzea egun baino are garrantzitsuagoa izango dela, merkatuak gidatzeko eta lehiakorrak izateko²¹.

Hazkunde jasangarrian laguntzeko, Euskadin eta hemendik kanpo euskal enpresen lehiakortasuna indartzeko eta ingurumen-eskaintza eskatzaileen eskakizunekin lerrokatuta dagoela ziurtatzeko, eskaintzaren eta eskariaren arteko koordinazio-jarduketak burutu behar dira.

Euskadi eskualde aitzindaria izan da gai honetan eta, hasieratik, helburu hau izan du: «**Euskal administrazioentzat lizitatzen duten enpresak gai izatea errekerimendu horiek betetzeko eta horrekin lehiakortasun-abantaila bat lortzea**, ingurumen-lidergoko eta produktuen eta zerbitzuen merkatu berriak garatzeko posizio baterantz haziz»²².

Lan horrek bere emaitzak eman ditu; izan ere, euskal enpresak Euskadin 2020an²³ argitaratutako ingurumen-irizpideak dituzten lizitazioen % 70en esleipendunak izan ziren.

Hori gorabehera, oraindik ere, enprekin lan egiten jarraitu behar da, batez ere, ETEekin, administrazioak ezarritako errekerimenduei erantzun ona ematea lortzeko eta horiek betetzen dituztela justifikatzeko modua bilatzeko. Gainera, ingurumen-bikaintasuneko maila gero eta handiagoa da eta entitateen premiak asetzeko modu berritzaileagoak eta jasangarriagoak aurkitu beharra dago; horregatik guztiagatik, eremu honetan egiten diren esfortzuak mantendu behar dira, bereziki, lehentasunezko sektoreetan. Horretarako, elkarrizketarako uneak bilatu behar dira, premiak jakinarazteko, lehentasunak lerrokatzeko eta konponbideak partekatzeko, negozio-eredu berriak barne, sektore publikoarekin eta pribatuarekin kontratatzen duten enpresen gaitasunak indartuko dituztenak.

JARDUKETA-ILDOAK _4. EREMUA:

L7. Merkatuarekiko elkarrizketa eta lankidetzaren sustatzea, konponbide berritzaileagoak, jasangarriagoak eta lehiakorragoak aurkitzeko.

L8. Enpresa hornitzaileak prestatzea, batez ere ETEak, kontratatzaileen ingurumen-eskariei aurre egiteko.

²¹ Ekodiseinuak Euskal Autonomia Erkidegoko enpresei eskaintzen dizkien negozio-aukerak. Eusko Jaurlaritza, 2017.

²² Eusko Jaurlaritzaren Erosketa eta Kontratazio Publiko Berderako Programa 2011- 2014. Eusko Jaurlaritza, 2011.

²³ Erosketa eta kontratazio publiko berdea Euskal Autonomia Erkidegoan. Jarduera-txostena: 2020ko ekitaldia. Eusko Jaurlaritza, 2021.

5. Eremua: Erosketa eta kontratazio berdearen aurrerapenak, lorpenak eta onurak ikusaraztea

Erosketa eta kontratazioaren misioa bere eginkizun nagusitik, hau da, ondasunak eta zerbitzuak modu zehatz eta eraginkor batean eskuratzetik, bigarren mailako helburu estrategikoen lorpena (hazkunde ekologikoa, lehiakortasuna, etab.) hedatzean aurrera egin heinean, beharrezkoa da lortutako aurrerapenak, lorpenak eta onurak neurtzea eta jakinaraztea.

Horrela, gizarteari erakutsi ahal zaio diru publikoa eraginkortasunez erabiltzen dela Euskadiren ongizaterako eta jasangarritasunerako. Sektore pribatuan, neurketa ere bada funtsezkoa, enpresa-kudeaketako eremu honetako inbertsioa defendatzeko, ingurumen-onuren terminoetan ez ezik, eraginkortasun, lehiakortasun eta ospeko terminoetan ere bai.

Aurrerapenen neurketak 12.7 Garapen Jasangarrirako Helburuaren lorpena erakusten du. «Jasangarriak diren erosketa publikoko jardunbideak sustatzea, nazio mailako politika eta lehentasunekin bat eginez» eta 2020an zehaztutako 12.7.1 adierazlea «Erosketa publiko jasangarria ezartzen duten herrialdeen kopurua»²⁴.

Onuren zenbatespenak erosketa eta kontratazioak entitate bakoitzean eta Euskadirentzat finkatutako helburu estrategikoen lorpenean egindako ekarpena ikusaraztea ahalbidetzen du, ELGAren kontratazio publikoari buruzko gomendioari erantzuteaz gain: «Eragina ebaluatzeko metodologia egokia erabiltzea, kontratazio publikoko sistemaren eraginkortasuna kuantifikatzeko politikako bigarren mailako helburuen lorpenean»²⁵.

Aurrerapen orokorrak erakustez gain, garrantzitsua da entitateek ezartzen dituzten ekintza zehatzak erakustea eta partekatzea; izan ere, bakoitzaren zailtasun, arrakasta eta ikasbideek laguntzen dute eta inspirazio-iturria dira gainerako entitate publiko eta pribatuentzat, bai Euskadin, bai Europa mailan zein nazioartean.

Euskadin, bi alderdietan aurreratu da baina, oraindik ere, gehiago aurrera daiteke erosketa eta kontratazio berdearen ezarpen errearen neurketan eta, batez ere, horrek euskal ekonomian zein Euskadiko ingurumen-lehentasunetan sortzen dituen onuren kuantifikazioan.

Hortaz, programa honetan, lan egingo da ingurumenari dagokionez jasangarria den erosketa eta kontratazioaren onurak zenbatesteko eta horren ezarpena neurtzeko metodologiak hobetzeko, baita jarduketa eredugarriak hedatzeko eta jakinarazteko ere, bai euskal lurraldearen barruan, bai horretatik kanpo.

JARDUKETA-ILDOAK _5. EREMUA:


L9. Ingurumenari dagokionez jasangarria den erosketa eta kontratazioaren **ezarpena neurtzea eta bere onurak zenbatestea**.

L10. **Euskadiren aurrerapenak eta lorpenak jakinaraztea eta sustatzea** barne-mailan zein Europa mailan eta nazioartean.

²⁴ SPP Index methodology: SDG Indicator 12.7.1. Nazio Batuen Ingurumenerako Programa, 2020.

²⁵ Kontseiluaren kontratazio publikoari buruzko Gomendioa OECD/LEGAL/0411. ELGA, 2015.

05. 2025 EKINTZA-PLANA



Programa honetan zehaztutako ikuspegiak eta jarduketa-ildoek 2030erako ezarritako helburuak lortzeko lehentasunezko eremuak ezarzen dituzte.

Horiek lortzeko, beharrezkoa da epe ertain eta luzerako ekintzak ezartzea, aukera emango dutenak norabide horretan aurrera egiteko. Gainera, ekintza horiek eguneratzeko aukera egon beharko da, lortutako emaitzen arabera eta, besteak beste, araudi-mailan egon daitezkeen testuinguru-aldaketen, aurrerapen teknologikoen, merkatuaren aldaketen, arrisku berrien edo ingurumen-lehentasunen arabera.

Horregatik, programa bost urteko bi ekintza-planen bidez hedatzen da eta horiek **epe ertain eta luzera** egin beharreko ekintzak jasotzen dituzte, zehazki, Euskadiko 2030 Erosketa eta Kontratazio Berdearen Programaren helburuak lortzeko.

Jarraian, **2025eko ekintza-plana** osatzen duten ekintza guztiak jasotzen dira eta, 4. eranskinean, ekintza bakoitzarekin lotutako eragileak eta adierazleak jasotzen dira.

Programa bost urteko bi ekintza-planen bidez hedatzen da eta horiek **epe ertain eta luzera** egin beharreko ekintzak jasotzen dituzte, zehazki, Euskadiko 2030 Erosketa eta Kontratazio Berdearen Programaren helburuak lortzeko.

1. Eremua:

Erosketa eta kontratazio berdea finkatzea euskadiko politikien hedapenerako funtsezko tresna gisa

1. JARDUKETA-ILDOA:

EROSKETA BERDEAREN PAPERA INDARTZEA TRESNA OPERATIBO GISA EUSKAL SEKTORE PUBLIKO OSOAREN ESPARRU POLITIKOAN ETA JURIDIKOAN

1. Instrukzio bat egitea, ingurumen-klausulak txertatzeko Euskal Autonomia Erkidegoko administrazioaren eta horren sektore publikoaren kontratazioan.
2. Erosketa berdea txertatzea Euskadiko araudi eta politika garrantzitsu berrietan.

2. JARDUKETA-ILDOA:

EROSKETA BERDEA EUSKADIREN INGURUMEN- ETA EKONOMIA-LEHENTASUNEKIN LERROKATZEN DELA BERMATZEA

3. Erosketa berdeko irizpideak berrikustea eta 3 urtean behin eguneratzea, euskal lehentasunekin lerrokatzeko.
 4. Erosketa berderako baliabideek Euskadiko garapen jasangarriko lehentasunak indartzen dituztela ziurtatzea.
-

2. Eremua:

Euskal sektore publiko eta pribatuaren erosketa eta kontratazio berdearekiko konpromisoan aurrera egitea

3. JARDUKETA-ILDOA:

EUSKAL SEKTORE PUBLIKO OSOAREN PARTE-HARTZEA LORTZEA

5. Administrazioen profilaren araberako lantaldeak sortzea, lizitazioetan ingurumen-irizpideak txertatzeko prozesua azkartzeko, Udalsarea2030 erabiliz sare nagusi gisa.
6. Lantalde bat sortzea obretan bigarren mailako materiala txertatzen dela ziurtatzeko, Euskadiko Hondakinak Prebenitu eta Kudeatzeko 2030eko Planean zehaztutako erabilerekin eta kalitateekin bat eginez.

4. JARDUKETA-ILDOA:

EUSKAL ENPRESAK SENTSIBILIZATZEA ETA MUGIARAZTEA

7. Berriazko estrategia/programa bat definitzea euskal enpresa-sektoreko erosketa eta kontratazio berderako, euskal enpresen hornikuntzan ingurumen-irizpideak txertatzea bultzatuko duena.
-

3. Eremua:

**Erosketa eta kontratazio berdea
antolakuntzetako egiturazko eta berrikuntzako
elementu bihurtzea**

5. JARDUKETA-ILDOA:

BALIABIDEAK HORNITZEA EZARPEN SISTEMATIKO ETA ESTRATEGIKO BATERAKO

8. Lizitazioen ingurumen-izaera indartzeko aholkularitzako edo babes pertsonalizatuko zerbitzua indartzea.
9. Tresna eta baliabide teknikoak sortzea eta/edo egokitzea erosketa eta kontratazio berderako.
10. Pilotu-ekimenak abiaraztea behar beste garatu ez diren erosketa berdearen eremuetan, bizitza-zikloaren kostuak edo berrikuntza-erosketa bezalako lehentasunezko gaietan zentratutakoak.

6. JARDUKETA-ILDOA:

**EROSKETA ETA KONTRATAZIOKO EGINKIZUNA PROFESIONALIZATZEA
INPLIKATUTAKO LANGILE GUZTIENGAN**

11. Euskal sektore publikoarentzako erosketa publiko berdearen inguruko trebakuntza egonkorreko ildo bat ezartzea, besteak beste, HAEEn bidez.
 12. Inplikaturako langile berriak integratzeko eskuliburu-erako materiala garatzea, bere jarduketetan ingurumen-irizpideak kontuan hartzearen paper estrategikoari eta betebeharrari dagokienez.
-

4. Eremua:

Merkatu egokia edukitzea, kalitatezkoa eta prestatua

7. JARDUKETA-ILDOA:

MERKATUAREKIKO ELKARRIZKETA ETA LANKIDETZA SUSTATZEA, KONPONBIDE BERRITZAILEAGOAK, JASANGARRIAGOAK ETA LEHIAKORRAGOAK AURKITZEKO

13. Entitate kontratatzaileen (publikoak eta pribatuak) eta hornitzaileen arteko elkarrizketarako bideak ezartzea, lehentasunezko produktu-taldeetan edo eremuetan zentratutakoak, premiak aurkezteko, egungo konponbideak ezagutzera emateko eta emaitzak areagotzeko, besteak beste, merkatuari zuzendutako kontsultak eta berrikuntzarako elkarketa bezalako figuren bidez.
14. Enpresa hornitzaileek tresna eta baliabide berrien garapenean parte hartzen dutela bermatzea.

8. JARDUKETA-ILDOA:

ENPRESA HORNITZAILEAK PRESTATZEA, BATEZ ERE ETEAK, KONTRATATZAILEEN INGURUMEN-ESKARIEI AURRE EGITEKO

15. Erosketa berdea txeratzea ETE Zirkularra programan.
 16. Enpresa hornitzaileentzako prestakuntza-saioak egitea, ingurumen-aldagaia bere ondasun eta zerbitzuetan txertatzeari eta eskaintzak prestatzeari buruz.
-

5. Eremua:

**Erosketa eta kontratazio berdearen aurrerapenak,
lorpenak eta onurak ikusaraztea**

9. JARDUKETA-ILDOA:

**INGURUMENARI DAGOKIONEZ JASANGARRIA DEN EROSKETA ETA KONTRATAZIOAREN
EZARPENA NEURTZEA ETA BERE ONURAK ZENBATESTEA**


- 17. Etekinak/emaitzak neurtzeko sistema bat definitzea, erosketa publiko berdearen abantailak identifikatzea ahalbidetuko duena.
- 18. Ingurumen-onuren kalkulua ahalbidetzen duten alderdiak txertatzea kontratazio berdeko irizpideetan bertan.

10. JARDUKETA-ILDOA:

**EUSKADIREN AURRERAPENAK ETA LORPENAK JAKINARAZTEA ETA SUSTATZEA
BARNE-MAILAN ZEIN EUROPA MAILAN ETA NAZIOARTEAN**

- 19. Erosketa berdeko jardunbide egokiak eta pleguen adibideak hedatzea euskal sektore publikoaren artean, beste bide batzuen artean, gaiaren inguruko albiste eta nobedadeak jasotzen dituzten sei hileko buletinen bidez.
 - 20. Euskadiren parte-hartzea areagotzea lortzea Nazio Batuen «Programme on Sustainable Public Procurement» Programan eta Icleiren «Procura+» Programan.
 - 21. Erosketa publiko berdearen inguruko urteko foro bat ospatzea, esperientziak aitortzeko eta partekatzeko eta kontratazioan ingurumen-irizpideak txertatzeko prozesua azkartzeko.
-

06. KUDEAKETA- EREDUA



6.1. GOBERNANTZA

Euskadiko 2030 Erosketa eta Kontratazio Berdearen Programaren buru, lehenik eta behin, Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Saila eta Ekonomia eta Ogasun Saila izango dira.

Hala eta guztiz ere, euskal sektore publiko osoak burutzen ditu eginkizun horiek. Inplikaturako eragile guztien parte-hartze eta inplikazio aktiboa ziurtatzeko eta programaren

helburuak eraginkortasunez lortzeko, zeharkako gobernantza parte-hartzaileko eredu hau ezartzen da:

IDAZKARITZA TEKNIKOA

Programaren idazkaritza teknikoaren eginkizun nagusiak hauek dira: programaren gobernantza-talde desberdinen dinamizazioa (jarraian zehaztutakoak) eta Segimenduko Erakunde Arteko Batzordeak zehaztutako ekintza zehatzen egikaritzapenaren ikuskapena.

IDAZKARITZA TEKNIKOA	Gobernantza-talde desberdinen dinamizazioa eta programaren egikaritzapen praktikoaren ikuskapena.
SEGIMENDUKO ERAKUNDE ARTEKO BATZORDEA	Programaren ezarpen-mailaren hedapena eta segimendua eta hobekuntza-neurrien identifikazioa ezarritako helburuak lortzeko.
JARDUNEAN DAUDEN ERAKUNDEEN TALDEAK	Erosketa eta kontratazioaren erabilera estrategikoa eta ezarpen sistematikoa.

Idazkaritza hori Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailak hartzen du bere gain, zehazki, ingurumen-kudeaketako lhobe sozietate publikoaren bidez.

SEGIMENDUKO ERAKUNDE ARTEKO BATZORDEA

Segimenduko Erakunde Arteko Batzordeak hauxe egiten du: ekintza-planen definizioa eta horiek hedatzeko urteko lan-programen definizioa; programaren ezarpen-mailaren eta lortutako aurrerapenen segimendua eta ezarritako helburuak lortzen direla ziurtatzeko hobekuntza-neurrien definizioa.

Batzordea Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailak eta Ekonomia eta Ogasun Sailak zuzenduko dute, zehazki, Ondare eta Kontratazio Zuzendaritzaren bitartez. Batzordeak barne hartuko ditu euskal administrazioaren maila guztiak, Eusko Jaurlaritzako sailak, foru aldundiak eta udalak, hain zuzen ere, programarekiko konpromisoak gauzatzen diren heinean.

Batzordea, gutxienez, urtean behin bilduko da, bere eginkizunak eraginkortasunez burutzeko, eta programaren hedapenerako nabarmenak izan daitezkeen bestelako entitateek ere parte hartu ahalko dute.

JARDUNEAN DAUDEN ERAKUNDEEN TALDEAK

Jardunean dauden erakundeen talde hauek Euskadiko 2030 Erosketa eta Kontratazio Berdearen Programarekin eta bertan zehaztutako helburuekin konpromisoa hartzen duten erakunde guztiek osatzen dituzte.

Lantalde hauek espazio egokiak izan behar dira esperientziak partekatu eta trukatzeko, konponbideak eraikitzeko eta Segimenduko Erakunde Arteko Batzordeari laguntzeko hedatu beharreko ekintzak eta lehentasunak zehazten.

Programarekiko konpromisoa horretarako atxikipen formalaren bidez artikulatuko da; atxikipen horrekin, entitateek hauxe egiteko konpromisoa hartzen dute:

- Erosketa eta kontratazio berdeko helburuak ezartzea.
- Urtero kontratazio berdeko plan bat zehaztea helburu horiek lortzeko.
- Lortutako emaitzen berri ematea.
- Lanerako eta trukerako saioretan parte hartzea.

Atxikipen hori programa honen 5. eranskinean jasotzen den atxikitze dokumentua sinatuz gauzatu egingo da.



Erakundeen errealitate desberdinengatik, taldeak honakoek osatuko dituzte: 1. Eusko Jaurlaritzako Sailak eta 2. programara atxikitako gainerako euskal sektore publikoa.

Atxikitako entitateen arteko trukea aldizka bilduko diren, gutxienez, urtean behin, lantaldeen bidez egingo da. Talde hauen asmoa da eragile parte-hartzaile guztien arteko sinergiak ahalik eta gehien baliatzea eta arduradun gehiago inplikatzeko, horrela, entitateen parte-hartzea eta dinamismoa handitzeko.

6.2. HEDAPENA

Aurretik aipatu den bezala, Euskadiko 2030 Erosketa eta Kontratazio Berdearen Programa **bost urteko bi ekintza-planen** bidez hedatzen da eta horiek programaren helburuak lortzeko epe ertain eta luzera egin beharreko ekintzak jasotzen dituzte.

Lehenengo ekintza-planak programa onesten denetik 2025era arteko aldia hartzen du. Amaitzerakoan, ezarritako helburuen lorpen-eta ezarpen-maila ebaluatu egingo da eta, ebaluazio horretatik abiatuta, 2026-2030 aldirako hurrengo ekintza-plana diseinatu egingo da. Horrekin, aukera egongo da jarduketak eguneratzeko eta programaren denbora-horizontearen barruan suertatzen diren testuinguru-aldaketetara egokitzeko, baita etengabeko hobekuntza-prozesu baten esparruan lortzen diren emaitzetara egokitzeko ere.

6.3. BALIABIDE EKONOMIKOAK

Euskadiko 2030 Erosketa eta Kontratazio Berdearen Programaren aurrekontu-premiak uneko testuinguru ekonomikora doitzen dira, aurreikusitako helburuen lorpena arriskuan jarri gabe, egin diren eta egikaritzen jarraitu behar diren jarduketan jarraitutasuna ahalbidetzeaz gain.

Aurreikusitako jarduketan garapenerako beharrezkoak diren aurrekontu-baliabideak Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailaren Ingurumen Jasangarritasuneko Sailburuordetzarekin lotutako 2021eko aurrekontu-esparruan oinarritzen dira. Langileen kapitulurako eta egitura-gastuetarako partidak ez dira beren-beregi sartzen zenbatetsitako aurrekontuan, hori aurrekontu operatibora mugatzen delako. Eusko Jaurlaritzako, Ingurumen Jasangarritasuneko Sailburuordetzako eta Ihebeko langile teknikoen irizpide adituan oinarrituta, hauxe izango litzateke aurrekontua, jarduketa-ildoetan eta eremuetan bereizita (40. orrialdeko taulan ikusten da).

Programa honen lehenengo ekitaldirako aurrekontuaren zenbatekoa 2021ean «Ingurumenaren babes» epigrafearen pean zuzendutako gastuaren % 0,56 baino ez da, soilik gastu operatiboak sartuz.

2021-2025 lehenengo ekintza-planerako, gutzitzaoren % 57ko aurrekontu-premia aurreikusten da, modu homogeenan banatuta lehenengo ekintza-planaren urte guztien artean, 2021ean izan ezik. Aurten, hau da, 2021ean, esfortzu handiagoa behar da, aurreko programaren ondorioz dagoeneko egiten ari diren ekintzei jarraitutasuna emateaz gain, irmoki sustatzeko erosketa berdeko programa berri eta handizaleago honen hasiera.

2026an hasiko den programaren bigarren ekintza-planerako, aurrekontu-premiak murriztea aurreikusten da, aurrekontu osoaren % 43,4, hain zuzen ere. Edonola ere, zenbatetsitako aurrekontu osoa Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailera atxikitako Ihobe Ingurumenkudeaketako Sozietate Publikoaren urteko aurrekontu orokorretan aurreikusita dago.

Aurreikusitako aurrekontu-esfortzua epe luzearako inbertsioztat hartu behar da, erosketa eta kontratazio berdeko tresnak finkatzen jarraitu ahala, aurrekontu-zama murriztea ahalbidetuko duena.

AURREKONTUA JARDUKETA-EREMUAREN ARABERA

	2021	2022	2023	2024	2025	2026	2027	2028	2029	2030	GUZTIRA	%
Erosketa eta kontratazio berdea politikak hedatzeko	L1: Erosketa publiko berdearen funtsezko zeregina indartzea										19.900	% 1.26
	6.000	1.750	1.750	1.750	1.750	1.500	1.400	1.300	1.200	1.500		
Euskal sektore publiko eta pribatuaren konpromisoa lortzea	L2: Euskadiren garapen-lehentasinekin lerrokatzea bermatzea										143.750	% 9.04
	10.000	12.250	17.500	17.500	17.500	15.000	14.000	13.000	12.000	15.000		
Erosketa eta kontratazio berdea egiturazko eta berrikuntzako elementu bihurtzea	L3: Euskal sektore publiko osoaren parte-hartzea lortzeko										80.950	% 5.09
	20.000	17.500	8.750	8.750	5.250	4.500	4.200	3.900	3.600	4.500		
Erosketa eta kontratazio berdearen aurrerapenak, lorpenak eta onurak bistaratzea	L4: Euskal enpresen atxikimendua sentsibilizatzea eta mobilizatzea										238.500	% 15
	30.000	26.250	26.250	26.250	26.250	22.500	21.000	19.500	18.000	22.500		
Merkatu egokia, kalitatekoa eta prestatua izatea	L5: Inplementazio sistematiko eta estrategikorako baliabideak eskaintzea										232.300	% 14.6
	30.000	26.250	26.250	26.250	26.250	19.500	25.200	20.800	16.800	15.000		
Erosketa eta kontratazio berdearen aurrerapenak, lorpenak eta onurak bistaratzea	L6: Erosketaren eta kontratazioaren eginkizunean esku hartzen duten langile guztiak profesionalizatzea										154.950	% 9.75
	14.000	12.250	26.250	26.250	21.000	12.000	11.200	10.400	9.600	12.000		
Erosketa eta kontratazio berdearen aurrerapenak, lorpenak eta onurak bistaratzea	L7: Merkatuarekiko elkarrizketa eta lankidetzeta sustatzea										159.000	% 10
	20.000	17.500	17.500	17.500	17.500	15.000	14.000	13.000	12.000	15.000		
Erosketa eta kontratazio berdearen aurrerapenak, lorpenak eta onurak bistaratzea	L8: Enpresa hornitzaileak prestatzea										254.250	% 16
	20.000	17.500	26.250	26.250	26.250	30.000	28.000	26.000	24.000	30.000		
Erosketa eta kontratazio berdearen aurrerapenak, lorpenak eta onurak bistaratzea	L9: Ezarpena neurtzea eta onurak estimatzea										191.000	% 12
	30.000	26.250	17.500	17.500	26.250	15.000	14.000	13.000	12.000	19.500		
Erosketa eta kontratazio berdearen aurrerapenak, lorpenak eta onurak bistaratzea	L10: Euskadiren aurrerapenak eta lorpenak komunikatzea eta sustatzea										115.400	% 7.26
	20.000	17.500	7.000	7.000	7.000	15.000	7.000	9.100	10.800	15.000		
GUZTIRA	200.000	175.000	175.000	175.000	175.000	150.000	140.000	130.000	120.000	150.000	1.590.000	
%	% 12.58	% 11.01	% 11.01	% 11.01	% 11.01	% 9.43	% 8.80	% 8.18	% 7.54	% 9.43		

6.4. SEGIMENDUA ETA EBALUAZIOA

Programaren aurrerapen-maila zein bertan ezarritako helburuen betetze-maila ebaluatzeko eta, beharrezkoa izatekotan, neurri zuzentzaileak proposatu ahal izateko, berebizikoa da programaren aldizkako segimendu-sistema bat ezartzea.

Horretarako, honako segimendu- eta ebaluazio-ekintza hauek ezartzen dira:

- **Urteko segimendu-txostenak:** urtero egingo da urtearen hasieran eta bost urtez behingo ekintza-planean aurreikusitako jarduketan aurrerapen-maila jasoko du, baita helburu estrategiko giltzarriak lortzeko egindako aurrerapena eta urteko lan-planerako gomendioak ere.
- **Ekintza-planaren ebaluazio-txostena:** bost urtez behingo ekintza-plan bakoitzaren azkenengo urtearen amaieran egingo da eta programaren agente-koadroaren adierazle guztien bilakaera jasoko du, baita hurrengo

ekintza-plana eta/edo indarrekoa ordeztuko duen programa berria zehazteko hausnarketak eta gomendioak ere. Txostena kanpoko erakunde batek egingo du, aintzat hartuz gardentasun, partaidetza eta lankidetzarako irizpideak, eta agente-koadroko adierazleen bilakaera ere barnean hartuko du.

Gardentasuna ziurtatze aldera, urtero, txosten bat argitaratu egingo da, programaren adierazle nagusien aurrerapenaren laburpenarekin. Txostena honako webguneetan kontsultatu ahalko da: Irekia webgunea (<https://www.irekia.euskadi.eus>); Kontratazio Publikoa Euskadin Plataformaren webgunea (<http://www.contratacion.euskadi.eus>) eta Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailera atxikitako Ihobe sozietate publikoaren webgunea: <https://www.ihobe.eus>.

Jarraian, Euskadiko 2030 Erosketa eta Kontratazio Berdearen Programaren betetze-maila neurtzeko adierazleak eta helburuak jasotzen dira.

AGINTE-KOADRO INTEGRALA

HELBURU ESTRATEGIKOAK	2025erako HELBURUA	2030erako HELBURUA
Programara atxikitako entitate publikoen kopurua	75	150
Programara atxikitako entitate pribatuen kopurua (entitate erosleak)	20	50
Garapen Jasangarrirako Helburua: 12.7.1 Adierazlea (Ingurumen-irizpideak dituen kontratazioari buruzko 4.6ari dagokionez) ²⁶	4,0	4,2
Erosketa publiko berdearen ehunekoa programan lehenetsitako kategorietan (eta kontratazio osoan) ²⁷	% 55 (% 40)	% 75 (% 60)

²⁶ Nazio Batuen Ingurumenerako Programak zehaztutako metodologiaren arabera kalkulatu da (<https://www.oneplanetnetwork.org/resource/spp-index-methodology-sdg-indicator-1271>). Adierazle honetan lor daitekeen gehieneko puntuazioa 5 da eta 4.6 baldin eta erosketa eta kontratazio publikoan ingurumen-aldagaia besterik ez bada txertatzen.

²⁷ Ezarritako ehunekoak erosketa publiko berdeko mailari egiten dio erreferentzia, bai kopuruan, bai zenbateko ekonomikoan, programa honetan bertan lehenetsitako kategoriei dagokienez. Hala, parentesi artean adierazitako ehunekoak alderdi berari egiten dio erreferentzia, baina kontratazio publiko osoari dagokionez. Erosketa publiko berdearen neurketa, bai lizitazioen kopuruari dagokionez, bai zenbateko ekonomikoari dagokionez, Europar Batasunak ezarritako erosketa publiko berdeko mailaren neurketa-rekin bat dator.

ESPERO DIREN EMAITZAK	2025erako HELBURUA	2030erako HELBURUA
Produktu, obra eta zerbitzu berdeen erosketarekin eta erabilera- rekin lotutako karbono-emisioen murrizketa-ehunekoa ²⁸	% 16	% 26
Iturri berriztagarrietatik lortutako elektrizitatearen hornidura-ehunekoa atxikitako entitate publikoetan	% 70	% 100
Atxikitako entitate publikoen lizitazioetan nabarmen txertatutako ontzi birziklagarrien edo berrerabilgarrien ehunekoa	% 50	% 100
Errebalorizatuko diren obrako hondakinen ehunekoa (Tn)	% 80	% 95

EZARPEN-ADIERAZLEAK	HELBURUA
Ekintza-planetako ekintzen egikaritzapen-maila	% 100
Mugiarazteko/dinamizatzeko ekintzen kopurua	3/urtean
Prestakuntza-ekintzen/baliabideen kopurua	4/urtean
Ikusarazteko ekintzen kopurua	4/urtean

KUDEAKETA-ADIERAZLEAK	HELBURUA
Ekintza-planen segimendu-txostenak egitea	Urtekoa
Emaitzen eta aurrerapenen laburpenak argitaratzea	Urtekoa
Ekintza-planen ebaluazio-txostenak egitea	2025, 2030

²⁸ Euskadiko Ekonomia Zirkularrerako Estrategia 2030ekin bat eginez ezarritako murrizketa-ehunekoa.



ERANSKINAK



1. ERANSKINA EUSKADIKO 2020KO EROSKETA ETA KONTRATAZIO PUBLIKO BERDEAREN PROGRAMAREN EMAITZEN LABURPENA



EUSKADIKO 2020KO EROSKETA ETA KONTRATAZIO PUBLIKO BERDEAREN PROGRAMAREN EMAITZEN LABURPENA

Kontratazio Publikoa Euskadin Plataformako Kontratuen Euskal Erregistrotik ateratako datuen arabera (<http://www.contratacion.euskadi.eus>), 2020-01-01etik 2020-12-31ra bitarteko aldirako:

Programaren lehenetsitako 20 kategoriatarako erosketa berdeko maila hauxe izan da:

- % 37 lizitazioen kopuruan
- % 35 bolumen ekonomikoan, helburua txikiagoa, baina erosketa berdearen aurrerapena erakutsiz aurreko urtearekiko, 2020ko ez-ohiko testuingurua gorabehera.

	LIZITAZIOAK INGURUMEN- IRIZPIDEEKIN	EROSKETA BERDEKO MAILA	PROGRAMAK ZEHAZTUTAKO HELBURUA
Lizitazioen-kopuruan	443	% 37	% 50
Zenbateko ekonomikoa (EUR)	163.817.885	% 35	% 50

Euskadiko 2020ko Erosketa eta Kontratazio Publiko Berdearen Programak, 2020rako, erosketa berdeko % 50era heltzea ezartzen du helburutzat, zehazki, lehenetsitako 20 produktu-, obra- eta zerbitzu-taldetan. Kontratuen Euskal Erregistroaren datuetatik abiatuta eta lizitazioak bere kontratu-xedeen arabera sailkatuz, hauxe antzeman daiteke:

Emaitzak nahiko desberdinak dira talde desberdinen artean. Talde batzuetarako, % 50eko

helburua lortu da edo hortik gertu dago eta beste batzuetan, aldiz, oraindik ere bide luzea dago egiteke. Hori urtetik urtera aldatzen da, kontratu zehatzen arabera eta ekitaldi desberdinetan kontratatzen duten entitateen arabera.

Hala eta guztiz ere, aurreko urtearekiko aurrerapen bat behatzen da; izan ere, aurreko urtean, 20 taldeen erosketa berdeko maila % 30ekoa zen lizitazioen kopuruan eta % 32koa bolumen ekonomikoan.

EUSKADIKO 2020KO EKPB-AREN PROGRAMAN LEHENETSITAKO PRODUKTU-TALDEA	EROSKETA BERDEAREN %A (ZENBAKIAN)	EROSKETA BERDEAREN %A (EUROTAN)
Papera (eta bulegoko materiala)	% 60	% 56
Eraikinen garbiketa	% 45	% 54
Autobus bidezko garraioa	% 38	% 1
Lorezaintza	% 48	% 83
Ibilgailuak	% 46	% 60
Elikadura	% 47	% 48
Altzariak	% 53	% 30
Argitalpenak eta inprimaketa	% 14	% 15
Ekitaldiak	% 11	% 4
Obrak (eraikuntza, urbanizazioa, obra zibila eta bestelakoak barne)	% 32	% 32
Lanerako arropa	% 91	% 88
Inprimaketa-ekipoak	% 40	% 46
Bide-garbiketa eta/edo hondakinen bilketa	% 43	% 46
Elektrizitatea	% 32	% 42
Bidaiak	% 38	% 83
Ordenagailuak	% 25	% 27
Mezularitza	% 21	% 5
Bestelako ehunak	% 0	% 0
GUZTIRA	% 37	% 35

INGURUMEN- IZAERAKO MAILA OROKORREAN

Kontratuen Euskal Erregistrotik 2020ko ekitaldirako ateratako datuen arabera:

Erosketa berdeko maila, guztira, hauxe izan da:

- % 26 lizitazioen kopuruan
- % 32 bolumen ekonomikoa

Erosketa berdearen aurrerapena erakutsiz aurreko urtearekiko, 2020ko ez-ohiko testuingurua gorabehera.

	LIZITAZIOAK GUZTIRA	INGURUMEN- IRIZPIDEEKIN	EROSKETA BERDEKO MAILA (%)
Lizitazio-kopurua	4.481	1.172	26
Zenbateko ekonomikoa (EUR)	1.638.479.616,1	526.117.789,5	32

INGURUMEN-IZAERAKO MAILA ERAKUNDE PUBLIKOAREN TIPOLOGIAREN ARABERA

Datuak erakunde publikoaren motaren arabera aztertzen badira, 2020an, ikusten da ingurumen-izaerako ehuneko global handiagoa duten erakundeak toki eta foru erakundeak eta «Bestelakoak» kategoriaren barruan sailkatutakoak direla, herenaren inguruko ingurumen-izaerako mailarekin (lizitazioen kopuruan).

Bestalde, Euskadiko 2020ko Erosketa eta Kontratazio Publiko Berdearen Programara atxikitako erakundeen ingurumen-izaerako maila aztertzen bada, gainerako sektore publiko-arekin alderatuta, ikusten da atxikitako erakundeek gainerako sektore publikoak baino ingurumen-izaerako maila handiagoak dituztela. Horrela, erakusten da atxikitako erakundeen konpromisoa eta dinamismoa bere kontratazioan ingurumen-gogoetak txertatzeari dagokionez eta, gainera, atxikipen horrek bere lizitazioetan ingurumen-irizpideak txertatzea motibatzen eta babesten duela.

ERAKUNDE PUBLIKOAREN MOTA	EROSKETA BERDEAREN %A (ZENBAKIAN)	EROSKETA BERDEAREN %A (EUROTAN)
Foru-entitateak eta bere sektore publikoa	% 30	% 49
Bestelakoak	% 32	% 43
Tokiko entitateak eta bere sektore publikoa	% 33	% 36
Eusko Jaurlaritza eta bere sektore publikoa	% 17	% 23

2020an, **atxikitako erakundeek gainerako sektore publikoak** baino ingurumen-izaerako **maila handiagoa** izaten jarraitzen dute.

Horregatik, garatzen ari den Euskadiko 2030 Erosketa eta Kontratazio Berdearen Programa berrira begira, esfortzuak egingo dira programa berrira erakunde gehiago atxikitzea lortzeko eta Eusko Jaurlaritzarekin lan egiteko, Euskadin erosketa berdearen ezarpenean aurrera egiteko.

ERAKUNDE PUBLIKOAREN MOTA	EROSKETA BERDEAREN %A (ZENBAKIAN)	EROSKETA BERDEAREN %A (EUROTAN)
Atxikitako entitateak	% 36	% 34
Gainerako sektore publikoa	% 24	% 32

ENPRESA ESLEIPENDUNEN JATORRIA

Azkenik, 2020ko lizitazioen enpresa esleipendunen jatorria ere aztertu egin da, kontratazio publikoak Euskadiko enpresetan zenbaterainoko onurak dituen aztertzeke eta ingurumen-klausulek prozesu horretan eragina duten edo ez ikusteko.

2020an, ikusten da Euskal Autonomia Erkidegoko hiru lurralde historikoetako batean (Araba, Bizkaia eta Gipuzkoa) kokatutako enpresak lizitazioen erdia baino gehiagoren esleipendunak izan direla eta emaitza horiek handiagoak dira ingurumen-irizpideak dituzten lizitazioetarako.

Emaitzak aurreko urteko emaitzen antzekoak dira, euskal enpresei esleitutako ingurumen-

Euskal enpresek prestakuntza ona dute ingurumen-irizpideak dituzten lizitazioei aurre egiteko, esleipendunak direlako hauetan:

Ingurumen-izaerako lizitazioen **% 70**ean ingurumen-izaerako lizitazioen bolumen ekonomikoaren **% 62** hartzen dute.

irizpideak dituzten lizitazioen bolumen ekonomikoari dagokionez izan ezik. Horrela, lizitazioen kopuruan, euskal enpresak bi urte hauetan esleipenen % 70 inguruan mantendu dira, bai orokorrean, bai ingurumen-irizpideak dituzten lizitazioetan. Aitzitik, termino ekonomikoetan, euskal enpresek irabazitako ingurumen-irizpideak dituzten lizitazioak % 62 dira, aurreko urteko % 80aren orde, kontratazioen batez bestekoa baino nahiko handiagoa izaten jarraitzen duena.

ENPRESA ESLEIPENDUNEN JATORRIA	EAEKOAK	GAINERAKO LEKUETAKOAK	EUSKAL ENPRESEN EHUNEKOA
Lizitazioen kopurua guztira	3.005	1.476	% 67
Lizitazio guztien bolumen ekonomikoa	910.074.232,4	728.405.383,8	% 56
Ingurumen-irizpideak dituzten lizitazioen kopurua	825	347	% 70
Ingurumen-irizpideak dituzten lizitazioen bolumen ekonomikoa	326.735.093,96	199.382.695,57	% 62

2. ERANSKINA

PROGRAMA EGITEKO PROZESUA



Programa honen lanketa Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailak sustatu egin du, zehazki, bere ingurumen-kudeaketako Ihobe sozietate publikoaren bidez, orain dela hamarkada bat baino gehiago gai honen inguruan hasitako lanari jarraitutasuna emateko helburuarekin, baina jauzi kualitatibo bat emanez, sektore publikoa ez ezik, Euskadiko enpresa-sektorea ere barne hartuz.

Bere garapenerako, honakoen **inplikazio eta parte-hartze ordainezinak** lortu ditugu: Eusko Jaurlaritzako sail eta sozietate publiko desberdinak; erosketa eta kontratazio berdean akti-

boak diren foru eta toki erakundeak eta Euskadiko zenbait enpresa.

Horiek guztiek azaldu dituzten **ikuspegi eta errealitate desberdinekin** eta, oinarritzko lan teknikoarekin batera, forma eman ahal izan zaio programari eta batera zehaztu ahal izan ditugu, bai 2030erako ikuspegi estrategikoa, bai 2025erako lehenengo ekintza-planerako ekintza zehatzak.

Euskadiko 2030 Erosketa eta Kontratazio Berdearen Programa egiteko kontuan hartutako elementuak eta egindako ekintzak hauek izan dira:

EGUNGO EGOERA ETA ERRONKAK	IKUSPEGI ESTRATEGIKOA	JARDUKETA-ILDOAK	EKINTZAK ETA SEGIMENDUA
Zein aurrerapen egin dira Europa mailan eta nazioartean? Zein puntutan gaude? Zeintzuk dira aurrera egiteko gainditu behar ditugun erronkak?	Zein da Euskadiren handinahia trantsizio honetan? Zein ikuspegi estrategiko planteatzen dugu 2030erako?	Zein jarduketa abiarazi behar dira helburuak lortzeko eta identifikatutako erronkak gainditzeko?	Zeintzuk dira ezarri beharreko ekintza zehatzak? Nola neurtuko ditugu aurrerapena eta lortutako emaitzak?
Nazioarteko ekimenik interesgarrienak identifikatzea, orain arte egindako lana balioztatzea eta gainditu beharreko erronka berriak identifikatzea	Epe ertainera zein luzera lortu beharreko helburuen, ikuspegiaren eta printzipioen definizioa	Identifikatutako erronkak gainditzea eta zehaztutako helburuak lortzea ahalbidetuko duten jarduketa-ildoen definizioa	Programaren segimendu-sistemaren definizioa zein jarduketa-ildoen hedapena zehazten dituzten ekintza-planen garapena

EGUNGO EGOERA

Kontratazio jasangarriko planen eta estrategien edukiak eta ikuspegiak aldatu egin dira azkenengo 15 urteotan, gai honetan aurrera egin eta hausnartu den heinean.

Europako zein nazioarteko beste erakunde eta gobernu batzuen ekimen eta politiketako joerak identifikatzeko eta kontuan hartzeko planteatutako ikuspegien aldaketak, barneratutako ikasbideen emaitza direnak, esperientziarik interesgarrien eta berritzaileen egungo egoeraren analisi bat burutzen da. Bertan, batetik, elementu estrategikoak aztertzen dira (lehentasunak, irismenak, gobernantza-ereduak, alde desberdinen parte-hartzea...) eta, bestetik, ezartzen ari diren ekintza eta ikuspegi berriak (abantailak eta desabantailak eta inplikaturako eragileak nabarmenduz).

Egindako analisisian honakoak aztertu dira:

- Nazioarteko tresnak, ekimenak eta akordioak (Nazio Batuen 2030 Agenda; *One Planet Sustainable Procurement Programme*; *Sustainable Purchasing Leadership Council*; Procura+ Sarea; ISO 20400, etab.).
- Europar Batasuneko estatu, eskualde eta toki mailako gobernuen estrategiak eta planak (Herbehereak; Danimarka; Finlandia; Austria; Eslovenia; Espainia; Flandria; RESCO; Oslo; Viena etaartzelona).

Gainera, ekimenetako eta herrialde garrantzitsuetako adituekin elkarrizketak egin dira, eguneratutako informazioa edukitzeko eta ekimenen aldaketak, ikasbideak eta arrakastafaktoreak identifikatzeko.

ORIENTAZIOA ETA ERRONKAK

Fase honetan, Euskadin ingurumenari dagokionez jasangarria den erosketa eta kontratazioaren ibilbidean sortutako ezagutza eta ikasbide guztiak baliatu dira, batez ere, Euskadiko 2030 Erosketa eta Kontratazio Berdearen Programatik abiatuta sortutakoak, oinarri estrategikoak eta gainditu beharreko erronkak definitzeko.

Horretarako, hauxe egiten da:

- Euskadiko ingurumen-estrategia eta politiken analisisia (Euskadi 2030 Agenda; 2020rako Ingurumen Esparru Programa; Euskadiko Ekonomia Zirkularrerako 2030eko Estrategia; KLIMA 2050 Estrategia; Biodibertsitate Estrategia 2030, etab.)
- Euskadiko 2020ko Erosketa eta Kontratazio Publiko Berdearen Programara atxikitako erakunde taldearen eta trakzio-taldearen bileren akten eta urteko txostenen azterketa.
- Eusko Jaurlaritzako, I hobeko eta atxikitako erakundeetako pertsona giltzarriek osatutako talde murriztu batekin egiaztatzea, batera zehazteko programa berriaren oinarriak, bereziki, ikuspegi estrategikoa eta erronkak, betiere bere ezagutza aditutik abiatuta.

IKUSPEGIA ETA EKINTZA

Aurreko urratsetako ekarpenekin, programaren ikuspegi estrategikoaren proposamen bat zehazten da (ikuspegia, printzipioak eta helburuak), baita identifikaturako erronkak gainditzeko hedatu beharreko epe ertain eta luzerako ekintzen eta jarduketa-ildoen proposamena ere.

EGIAZTATZEA ETA ABERASTEA

Programaren edukia, zirriborro-bertsioan, inplikaturako eragile nagusiei aurkezten zaie, bere ikuspegi, ezagutza, errealitate eta esperientzia desberdinak jasotzen direla ziurtatzeko. Honakoekin egiaztatzen da:


- Eusko Jaurlaritzako sail desberdinetako ordezkariak
- Aurreko programara atxikitako entitateak
- Gainerako euskal sektore publiko
- Ihebeko ekipo teknikoak eta erosketa berdearen inguruan emandako kanpo-laguntzak
- Enpresa-sektorea
- Herritarrak (Irekia plataforma)

EGINDAKO EGIAZTATZEKO EKINTZAK	EMAITZAK
Elkarrizketak adituekin	7 elkarrizketa 7 aditu elkarrizketatu dira
Egiaztatzeko saioak interes-taldeekin	7 saio antolatu dira 334 parte-hartzaile Ordezkaturako 219 entitate
Parte-hartze irekia beste interes-talde batzuetara - Irekia	Ez da ekarpenik egin 0 parte-hartzaile

PROGRAMA GARATZEKO PROZESUAREN DENBORA-ESKEMA

1. Etapa	2. Etapa	3. Etapa	4. Etapa	5. Etapa	6. Etapa
2020ko maiatza-ekaina	2020ko ekaina-uztaila	2020ko uztaila-2021eko martxoa	2021eko martxoa-ekaina	2021eko ekaina-iraila	2021eko azaroa
Egungo egoera (elementu estrategikoak)	Parte hartzeko 1. fasea: Aurretzeko kontsultak Euskadiko Erosketa eta Kontratazio Publiko Berdeko eragile nagusiei	Zirriborro-programa egitea	Parte hartzeko 2. fasea: Sozializazioa inplikaturako gainerako eragileei	Azken programa egitea eta izapidetzeko gainerako dokumentuak	Behin betiko izapidetzea eta onespena
Egungo egoera (ekintzak)					

3. ERANSKINA
BESTELAKO EUSKAL
POLITIKETAN
ETA ARAUDI
SEKTORIALEAN
EZARRITAKO
ETA PROGRAMA
HONEK LORTZEN
LAGUNDUKO DUEN
INGURUMEN-
HELBURUAK
ETA EROSKETA
BERDEKO
HELBURUAK



EROSKETA BERDEAK LAGUNDU BEHAR DUEN 2030ERAKO INGURUMEN-HELBURUAK

Ekonomia Zirkularrerako 2030eko Estrategia

- Produktibitate materiala % 30 areagotzea.
- Material zirkularraren erabilera-tasa % 30 areagotzea.
- Hondakinen sorkuntza-tasa % 30 murriztea.
- Elikagai-hondakinen sorkuntza erdira murriztea.
- Plastikozko ontzien % 100 birziklagarriak izatea lortzea.
- Kontsumoarekin lotutako karbono-emisioak % 26 murriztea.

KLIMA 2050 Estrategia

- Berotegi efektuko gasen emisioak % 40 murriztea.
- Energia berriztagarriaren % 20ko kuota lortzea azken kontsumoaren gainean.
- Euskal lurraldearen klima-aldaketarekiko erresilientzia ziurtatzea.

Energia Estrategia 2030

- Lehen mailako energiaren % 17ko aurrezpena lortzea.
- Energia berriztagarriaren % 20ko kuota lortzea azken kontsumoaren gainean.
- Petrolioaren azken kontsumoa % 26 murriztea
- Klima-aldaketa arintzen laguntzea.

Biodibertsitate Estrategia 2030

- Nekazaritza eta ingurumeneko, basogintza eta ingurumeneko eta baso-kudeaketa jasangarriko neurrietara atxikitako azalera handitzea.
-

BESTE PLAN BATZUETAN ETA ARAUDIAN EZARRITAKO EROSKETA BERDEKO HELBURU NAGUSIAK

KLIMA 2050 Estrategia

- Eusko Jaurlaritzak jatorri berriztagarriko energia elektrikoaren erosketaren % 100 lortzea.
- Energia-eraginkortasuna eta energia berriztagarriak bultzatzea, Eusko Jaurlaritzaren eraikinen kalifikazio energetikoa hobetzeko.
- Bultzada Eusko Jaurlaritzaren ibilgailuen % 40k bestelako energia-iturriak erabiltzeko.
- Klima-aldaketa arintzeko neurriak bultzatzea tokiko eremuan.

Energia Estrategia 2030

- Euskal administrazio publikoaren konpromiso eredugarria sustatzea, 10 urtetan, bere instalazioen energia-kontsumoa % 25 murriztea ahalbidetzeko, eraikinen % 25ean energia berriztagarriak aprobetxatzeko instalazioak ezartzeko eta ibilgailuen parkean eta zerbitzu publikoetako flotetan bestelako ibilgailuak sartzeko.

Jasangarritasun Energetikoaren legea

- Euskal sektore publikoaren energia-kontsumoa % 35 murriztea.
- Kontsumoaren % 32 hornitzea eraikinetan instalatutako energia berriztagarriak aprobetxatzeko instalazioen bidez.
- Btik beherako sailkapen energetikoa duten eraikinen % 40k kalifikazio hori edo handiagoa lortzea sustatzea.
- Ibilgailuen % 100ek bestelako erregaiak erabili beharko dituzte.

EAEko Hondakinak Prebenitu eta Kudeatzeko 2030eko Plana

- Prebentzioa: 2030erako BPGd-unitate bakoitzak sortzen duen hondakin-tasa % 30 murriztea, 2016. urtearekin alderatuta, eta hondakinen sorkuntza absolutua % 15 murriztea. (Helburu estrategikoa).
- Gaikako bilketa: 2030ean hondakinen % 85 jatorrian bereiztea. (Helburu estrategikoa).
- Balorizazioa: 2030erako hondakinen % 85 bigarren mailako baliabide bihurtzea, balorizazio energetikoa % 15 baino gutxiagora mugatuz. (Helburu estrategikoa).
- Deuseztapena murriztea: Hondakinak deuseztatzeke operazioen bidezko kudeaketa sortutako hondakinen % 15era baino gutxiagora mugatzea 2030erako. (Helburu estrategikoa).
- EAEko biohondakinen gaikako bilketatik sortutako konpostaren % 100 euskal administrazioek kontsumitzea sustatzea. (Berariazko helburua).
- Bigarren mailako materialen eta bigarren mailako materialekin sortutako produktuen borondatezko CE markaketa sustatzea, horien merkaturatzea errazteko helburuarekin, jatorria EAEn duten bigarren mailako agregakinen % 75ek CE markaketa edukitzeko. (Berariazko helburua).

Ingurumen Administrazio- aren Legea

- Azpiproduktu, bigarren mailako lehengai, birziklatutako material edo obra- eta hornidura-kontratuetan berrerabiltzeko prestaketa-prozesuetatik sortutako materialen % 40 erabiltzea, justifikatutako arrazoi teknikoengatik ehuneko hori murriztu behar bada izan ezik.

**4. ERANSKINA
2025 EKINTZA-
PLANAREN
EKINTZAK,
ADIERAZLEAK
ETA LOTUTAKO
ERAGILE
ARDURADUNAK**



JARDUKETA-EREMUA	JARDUKETA-ILDOA	EKINTZA	LOTUTAKO ADIERAZLEAK	ERAGILE ARDURADUN NAGUSIA	
1. eremua: Erosketa eta kontratazio berdea finkatzea Euskadiko politiken hedapenerako funtsezko tresna gisa	L1: Erosketa berdearen papera indartzea tresna operatibo gisa euskal sektore publiko osoaren esparru politikoan eta judirikoan	1	Instrukzio bat egitea, ingurumen-klausulak txertatzeko Euskal Autonomia Erkidegoko administrazioaren eta horren sektore publikoaren kontratazioan.	Egin da/ Ez da egin	Ekonomia eta Ogasun Saila - Ondare eta Kontratazio Zuzendaritza
		2	Erosketa berdea txertatzea Euskadiko araudi eta politika garrantzitsu berrietan.	Burututako ekintzen kopurua	
	L2: Erosketa berdea Euskadiren ingurumen-eta ekonomia-lehentasunekin lerrotzeko delat bermatzea	3	Erosketa berdeko irizpideak berrikustea eta 3 urtean behin eguneratzea, euskal lehentasunekin lerrotzeko.	Garatutako edo eguneratutako kategorien kopurua (prestakuntza-ekintzen/baliabideen adierazlea aipatu)	Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Saila - Ihobe
		4	Erosketa berderako baliabideek Euskadiko garapen jasagarriko lehentasunak indartzen dituztela ziurtatzea.	Burututako ekintzen kopurua	
2. eremua: Euskal sektore publiko eta pribatuaren erosketa eta kontratazio berdearekiko konpromisoan aurrera egitea	L3: Euskal sektore publiko osoaren parte-hartzea lortzea	5	Administrazioen profilaren araberako lantaldeak sortzea, lizitazioetan ingurumen-irizpideak txertatzeko prozesua azkartzeko, Udalsarea2030 erabiliz sare nagusi gisa.	Sortutako taldeen kopurua/Erakunde parte-hartzaileen kopurua (mugiarazteko-dinamizatzeo adierazlea aipatu)	Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Saila - Ihobe
		6	Lantalde bat sortzea obretan bigarren mailako materiala txertatzen dela ziurtatzeko, Euskadiko Hondakinak Prebenitu eta Kudeatzeko 2030eko Planean zehaztutako erabilerekin eta kalitateekin bat eginez.	Egin da/ Ez da egin Erakunde parte-hartzaileen kopurua (mugiarazteko-dinamizatzeo adierazlea aipatu)	
	L4: Euskal enpresak sensibilizatzea eta mugiaraztea	7	Berariazko estrategia/programa bat definitzea euskal enpresa-sektoreko erosketa eta kontratazio berderako, euskal enpresen hornikuntzan ingurumen-irizpideak txertatzea bultzatuko duena.	Egin da/ Ez da egin Inplikaturako enpresen kopurua	Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Saila - Ihobe
3. eremua: Erosketa eta kontratazio berdea antolakuntzetako egiturazko eta berrikuntzako elementu bihurtzea	L5: Baliabideak hornitzea ezarpen sistematiko eta estrategiko baterako	8	Lizitazioen ingurumen-izaera indartzeko aholkularitzako edo babes pertsonalizatuko zerbitzua indartzea.	Egin da/Ez da egin (prestakuntza-ekintzen/baliabideen adierazlea aipatu)	Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Saila - Ihobe
		9	Tresna eta baliabide teknikoak sortzea eta/edo egokitzea erosketa eta kontratazio berderako.	Landutako baliabideen eta tresnen kopurua (prestakuntza-ekintzen/baliabideen adierazlea aipatu)	
		10	Pilotu-ekimenak abiaraztea behar beste garatu ez diren erosketa berdearen eremuetan, bizitza-zikloaren kostuak edo berrikuntza-erosketa bezalako lehentasuneko gaietan zentratutakoak.	Burututako ekintzen kopurua (mugiarazteko-dinamizatzeo adierazlea aipatu)	

[.../...]


JARDUKETA-EREMUA	JARDUKETA-ILDOA	EKINTZA	LOTUTAKO ADIERAZLEAK	ERAGILE ARDURADUN NAGUSIA
3. eremua: Erosketa eta kontratazio berdea antolaketarako egiturazko eta berrikuntzako elementu bihurtzea	L6: Erosketa eta kontratazio eginkizuna profesionalizatzea inplikaturako langile guztiengan	11 Euskal sektore publikoarentzako erosketa publiko berdearen inguruko trebakuntza egonkorreko ildo bat ezartzea, besteak beste, HAEEn bidez.	Egin da/Ez da egin Burututako lantegien/jardunaldien kopurua (prestakuntza-ekintzen/baliabideen adierazlea aipatu)	Ekonomia eta Ogasun Saila - Ondare eta Kontratazio Zuzendaritza
		12 Inplikaturako langile berriak integratzeko eskuliburu-erakundeak materiala garatzea, bere jarduketan ingurumen-irizpideak kontuan hartzearen paper estrategikoari eta betebeharrari dagokienez.	Burututako ekintzen kopurua (prestakuntza-ekintzen/baliabideen adierazlea aipatu)	
4. eremua: Merkatu egokia edukitzea, kalitatekoa eta prestatua	L7: Merkatuarekiko elkarrizketa eta lankidetzaren sustatzea, konponbide berritzaileak jasagarriagoak eta lehiakorragoak aurkitzeko	13 Entitate kontratatzaileen (publikoak eta pribatuak) eta hornitzaileen arteko elkarrizketarako bideak ezartzea, lehentasunezko produktu-taldeetan edo eremuetan zentratutakoak, premiak aurkezteko, egungo konponbideak ezagutzera emateko eta emaitzak areagotzeko, besteak beste, merkatuari zuzendutako kontsultak eta berrikuntzarako elkarketa bezalako figuren bidez.	Burututako ekintzen kopurua (mugiarazteko-dinamizatzeko adierazlea aipatu) Erakunde parte-hartzaileen kopurua	Ekonomiaren Garapen, Jasagarritasun eta Ingurumen Saila - Ihobe
		14 Enpresa hornitzaileek tresna eta baliabide berrien garapenean parte hartzen dutela bermatzea.	Burututako ekintzen kopurua (mugiarazteko-dinamizatzeko adierazlea aipatu) Erakunde parte-hartzaileen kopurua	
	L8: Enpresa hornitzaileak prestatzea, batez ere ETEak, kontratatzaileen ingurumen-eskariei aurre egiteko	15 Erosketa berdea txeratzeko ETE Zirkularra programan.	Burututako ekintzen kopurua (mugiarazteko-dinamizatzeko adierazlea aipatu)	Ekonomiaren Garapen, Jasagarritasun eta Ingurumen Saila - Ihobe
		16 Enpresa hornitzaileentzako prestakuntza-saioak egitea, ingurumen-aldagaia bere ondasun eta zerbitzuetan txertatzeari eta eskaintzak prestatzeari buruz.	Burututako saioen kopurua (prestakuntza-ekintzen/baliabideen adierazlea aipatu) Erakunde parte-hartzaileen kopurua	

[.../...]

[.../...]

JARDUKETA-EREMUA	JARDUKETA-ILDOA	EKINTZA	LOTUTAKO ADIERAZLEAK	ERAGILE ARDURADUN NAGUSIA	
5. eremua: Erosketa eta kontratazio berdearen aurrerapenak, lorpenak eta onurak ikusaraztea	L9: Ingurumenari dagokionez jasangarria den erosketa eta kontratazioaren ezarpena neurtzea eta bere onurak zenbatestea	17	Etekinak/emaitzak neurtzeko sistema bat definitzea, erosketa publiko berdearen abantailak identifikatzea ahalbidetuko duena.	Egin da/Ez da egin (bisualizazio-adierazlea aipatu)	Ekonomiaren Garapen, Jasangarrtasun eta Ingurumen Saila - Ihobe
		18	Ingurumen-onuren kalkulua ahalbidetzen duten alderdiak txertatzea kontratazio berdeko irizpideetan bertan.	Jorratutako kategorien kopurua (bisualizazio-adierazlea aipatu)	
	L10: Euskadiren aurrerapenak eta lorpenak jakinaraztea eta sustatzea barne-mailan zein Europa mailan eta nazioartean	19	Erosketa berdeko jardunbide egokiak eta pleguen adibideak hedatzea euskal sektore publikoaren artean, beste bide batzuen artean, gaiaren inguruko albiste eta nobedadeak jasotzen dituzten sei hileko buletinen bidez.	Argitaratutako jardunbide egokien kopurua (bisualizazio-adierazlea aipatu)	Ekonomiaren Garapen, Jasangarrtasun eta Ingurumen Saila - Ihobe
			Argitaratutako plegu-ereduen kopurua (bisualizazio-adierazlea aipatu)		
		20	Euskadiren parte-hartzea areagotzea Iortzea Nazio Batuen «Programme on Sustainable Public Procurement» Programan eta Icleiren «Procura+» Programan.	Argitaratutako buletinen kopurua (bisualizazio-adierazlea aipatu)	
			Burututako parte-hartzeen kopurua (bisualizazio-adierazlea aipatu)		
21	Erosketa publikoaren inguruko urteko foro bat ospatzea, esperientziak aitortzeko eta partekatzeko eta kontratazioan ingurumen-irizpideak txertatzeko prozesua azkartzeko.	Egin da/Ez da egin (bisualizazio-adierazlea aipatu)	Erakunde parte-hartzaileen kopurua (bisualizazio-adierazlea aipatu)		

5. ERANSKINA
EUSKADIKO
2030 EROSKETA
ETA KONTRATAZIO
BERDEAREN
PROGRAMA
ATXIKITZEKO
DOKUMENTUA




ATXIKITZEKO DOKUMENTUA

EUSKADIKO EROSKETA ETA KONTRATAZIO BERDEAREN PROGRAMA 2030



01. AURKEZPENA



Euskadiko 2030 Erosketa eta Kontratazio Berdearen Programa Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko sailburuaren eta Ekonomia eta Ogasuneko sailburuaren 2021eko azaroaren 24ko Agindu bateratuak onetsi zuen eta euskal administrazioek bere erosketa eta kontratazioan ingurumen-irizpideak barneratzea eta onartzea ahalbidetzen duen jarduketa-esparrua ezartzen du.

Euskadiko 2030 Erosketa eta Kontratazio Berdearen Programak, bere misioaren eta printzipioen bidez, **erronka hauei** heltzen die:

- Erosketa berdea ainguratzea esparru juridiko-politiko irmo batean eta Euskadiko lehen-tasunezko ingurumen- eta ekonomia-helburu eta politikentzako babesa ziurtatzea.
- Erosketa publiko berdea finkatzea euskal administrazio osoan, antolakuntzetan egiturazko eta berrikuntzako elementu bihurtuz.
- Erosketa berdea euskal sektore pribatuan ere ezartzea, balio-kateen bidez merkatuaren trakzioa egiteko duten potentzialagatik.
- Merkatu berdea kalitatezko euskal eskaintza lehiakor eta prestatu batekin garatzea, arreta berezia jarriz ETEetan.
- Segimendu-sistemak hobetzea eta kontratazio berdeak Euskadin dituen eraginak eta onurak ikusaraztea.

IKUSPEGIA

Euskal sektore publikoaren eta pribatuaren erosketa-potentzuala erabiltzea bikaintasunez eta merkatuarekiko koordinazioan, garapen sozioekonomiko jasan-garribaterako, aldi berean, ingurumenaren babesa, enpresa-lehiakortasuna eta pertsonen ongizatea areagotuko dituen Euskadin.

PRINTZPIOAK

- Koherentzia.
- Gardentasuna.
- Erantzunkidetasuna.
- Lankidetzeta.
- Eraginkortasuna eta berrikuntza.
- Sentsibilizazioa eta profesionalizazioa.

Euskadiko 2030 Erosketa eta Kontratazio Berdearen Programak honako **helburu kuantitatiboak ezartzen ditu eta hauek dira espero diren emaitzak:**

AGINTE-KOADRO INTEGRALA

HELBURU ESTRATEGIKOAK

	2025erako HELBURUA	2030erako HELBURUA
Programara atxikitako entitate publikoen kopurua	75	150
Programara atxikitako entitate pribatuen kopurua (entitate erosleak)	20	50
Garapen Jasangarrirako Helburua: 12.7.1 Adierazlea (Ingurumen- rizpideak dituen kontratazioari buruzko 4.6ari dagokionez) ¹	4,0	4,2
Erosketa publiko berdearen ehunekoa programan lehenetsitako kategorietan (eta kontratazio osoan) ²	% 55 (% 40)	% 75 (% 60)

ESPERO DIREN EMAITZAK

	2025erako HELBURUA	2030erako HELBURUA
Produktu, obra eta zerbitzu berdeen erosketarekin eta erabilerarekin lotutako karbono-emisioen murrizketa-ehunekoa ³	% 16	% 26
Iturri berriztagarrietatik lortutako elektrizitatearen hornidura-ehunekoa atxikitako entitate publikoetan	% 70	% 100
Atxikitako entitate publikoen lizitazioetan nabarmen txertatutako ontzi birziklagarrien edo berrerabilgarrien ehunekoa	% 50	% 100
Errebalorizatuko diren obrako hondakinen ehunekoa (Tn)	% 80	% 95

¹ Nazio Batuen Ingurumenerako Programak zehaztutako metodologiaren arabera kalkulatu da (<https://www.oneplanetnetwork.org/resource/spp-index-methodology-sdg-indicator-1271>). Adierazle honetan lor daitekeen gehieneko puntuazioa 5 da eta 4.6 baldin eta erosketa eta kontratazio publikoan ingurumen-aldagaia besterik ez bada txertatzen.

² Ezarritako ehunekoak erosketa publiko berdeko mailari egiten dio erreferentzia, bai kopuruan, bai zenbateko ekonomikoan, programa honetan bertan lehenetsitako kategoriei dagokionez. Hala, parentesi artean adierazitako ehunekoak alderdi berari egiten dio erreferentzia, baina kontratazio publiko osoari dagokionez. Erosketa publiko berdearen neurketa, bai lizitazioen kopuruari dagokionez, bai zenbateko ekonomikoari dagokionez, Europar Batasunak ezarritako erosketa publiko berdeko mailaren neurketa-ekin bat dator.

³ Euskadiko Ekonomia Zirkularerako Estrategia 2030ekin bat eginez ezarritako murrizketa-ehunekoa.

4 ATXIKITZEKO DOKUMENTUA

Eta, ingurumen-onurarik handienak lortzeko, honako ondasun, zerbitzu eta obren kategorია hauek lehenesten ditu:



Azkenik, Euskadiko Erosketa eta Kontratazio Berdearen Programaren hedapena hurrengo **10 jarduketa-ildoan** bidez artikulatzen da, geroago 21 ekintza zehatzetan banakatzen direnak:

JARDUTE-ESPARRUA	JARDUKETA-ILDOA
<p>1. Eremua: Erosketa eta kontratazio berdea finkatzea Euskadiko politiken hedapenerako funtsezko tresna gisa</p>	<p>L1: Erosketa berdearen papera indartzea tresna operatibo gisa euskal sektore publiko osoaren esparru politikoan eta juridikoan.</p> <p>L2: Erosketa berdea Euskadiren ingurumen- eta ekonomia-lehentasunekin lerrokatzen dela bermatzea.</p>
<p>2. Eremua: Euskal sektore publiko eta pribatuaren erosketa eta kontratazio berdearekiko konpromisoan aurrera egitea</p>	<p>L3: Euskal sektore publiko osoaren parte-hartzea lortzea.</p> <p>L4: Euskal enpresak sentzibilizatzea eta mugiaraztea.</p>
<p>3. Eremua: Erosketa eta kontratazio berdea antolakuntzetako egiturazko eta berrikuntzako elementu bihurtzea</p>	<p>L5: Baliabideak hornitzea ezarpen sistematiko eta estrategiko baterako.</p> <p>L6: Erosketa eta kontratazioko eginkizuna profesionalizatzea inplikaturako langile guztiengan.</p>
<p>4. Eremua: Merkatu egokia edukitzea, kalitatezkoa eta prestatua</p>	<p>L7: Merkatuarekiko elkarrizketa eta lankidetzatza sustatzea, konponbide berritzaileagoak, jasangarriagoak eta lehiakorragoak aurkitzeko.</p> <p>L8: Enpresa hornitzaileak prestatzea, batez ere ETEak, kontratatzaileen ingurumen-eskariei aurre egiteko.</p>
<p>5. Eremua: Erosketa eta kontratazio berdearen aurrerapenak, lorpenak eta onurak ikusaraztea</p>	<p>L9: Ingurumenari dagokionez jasangarria den erosketa eta kontratazioaren ezarpena neurtzea eta bere onurak zenbatestea.</p> <p>L10: Euskadiren aurrerapenak eta lorpenak jakinaraztea eta sustatzea barne-mailan zein Europa mailan eta nazioartean.</p>

02. PROGRAMARA ATXIKITZEA: BETEKIZUNAK ETA KONPROMISOAK

Programak izaera parte-hartzaile aktiboa dauka eta erosketak eta kontratazio publiko berdeekin konprometitu nahi duen euskal sektore publiko osoaren atxikipen boluntarioa sustatzen du.

Atxikipen honek dakarren konpromisoak ez du soilik ingurunearekiko eraginak murriztea eragiten; horrez gain, baliabide publikoen kudeaketaren gardentasuna eta eraginkortasuna areagotzen ditu eta eredu garriak izatea sustatzen du, merkatuaren berrikuntza bultzatuz lehiakorragoak diren eta ingurumenarekiko errespetu handiagoa duten produktu eta zerbitzuetan eta, azken batean, herritarren bizi-kalitatea hobetzen laguntzen du.

2.1. ATXIKITZEKO BETEKIZUNAK

Programa honetara atxikitzeko eta horretan parte hartzeko, hauek dira baldintzak:

- Euskal sektore publikoko entitate bat izatea.
- Entitateak sinatzea atxikitzeko akordioa.
- Entitatean erosketak eta kontratazio publiko berdea zuzendu eta koordinatuko duen arduradun bat izendatzea.

2.2. ATXIKITAKO ENTITATEEN KONPROMISOAK

Programa honetara atxikitzean, euskal administrazioek konpromiso hauek hartzen dituzte:

- Urteko lan-plan bat ezartzea programan lehenetsitako eremuetan eta antolakuntzarentzat bereziki interesgarria den beste eremu batean gutxienez.
- Kontratazio publiko berdearen analisia egitea eta hori integratzea administrazioaren prozedura eta tresnetan.
- Erakundearen erosketa eta kontratazioan inplikaturako langileak prestatzea eta gaitzea.
- Apurka-apurka, lehenetsitako produktu- eta zerbitzu-taldeek erosketen eta kontratazioen ingurumen-izaera handitzea, gutxienez, programan 2025erako eta 2030erako ezarritako helburuetara heldu arte.
- Kontratazio Publikoa Euskadin Plataforman ingurumen-irizpideak txertatzearekin lotutako datuak behar bezala betetzen direla ziurtatzea. Erakundeak bere lizitazioak plataforma horren bidez kudeatzen ez baditu, banaka bidaliko ditu urteko segimenduaren datuak idazkaritza teknikora zuzenean⁴.
- Jardunbide egokiak eta esperientziak partekatzea Euskadiko beste administrazio batzuekin.

2.3. IDAZKARITZA TEKNIKOAREN KONPROMISOAK

Bestalde, Ihobe S.A. Ingurumen-kudeaketako Sozietate Publikoak, Euskadiko 2030 Erosketa eta Kontratazio Berdearen Programaren idazkaritza tekniko gisa, honetarako konpromisoa hartzen du:

- Babesa eta baliabide teknikoak ematea administrazio parte-hartzaileek hartutako konpromisoak gauzatzeko.
- Euskal Administrazioaren erosketa eta kontratazioan inplikaturako langileei zuzendutako prestakuntza eta gaikuntza ematea.
- Lantaldeak antolatzea esperientziak, ikasbideak, lorpenak eta erronkak partekatzeko, erakunde desberdinek ezarritako helburu eta konpromisoen lorpenean aurrera egin ahal izateko.
- Euskal administrazioaren erosketa eta kontratazio publiko berdearen jardunbide egokiak, esperientziak eta emaitzak hedatzea, bai Euskal Autonomia Erkidegoan, bai kanpoan.
- Programaren emaitzen eta garapenaren segimendua eta urteko hedapena egitea, atxikitako erakunde parte-hartzaileek emandako datuetatik abiatuta.

⁴ Idazkaritza Teknikoak banan-banan emandako datuak modu bateratuan erabil ditzake. Banakako datuak erabiltzeko, Idazkaritza Teknikoak berariazko baimena eskatuko diodagokion erakundeari.

ATXIKITZEKO INPRIMAKIA

..... jaunak/andreak,
 NAN zenbakia duenak eta egoitza soziala duen
 erakundearen (kargua) gisa,
 telefono-zenbakiarekin eta harremanetarako
 helbidearekin.


HAUXE ADIERAZTEN DU:

1. Euskadiko 2030 Erosketa eta Kontratazio Berdearen Programara atxikitzen da.
2. Dokumentu honetan zehaztutako programara atxikitze betekizunak ezagutzen ditu eta horiek onartu eta betetzen ditu.
3. Atxikitze dokumentuan jasotako konpromisoak hartzen ditu.
4. (e)ko kargua eta helbide elektronikoa dituen izendatzen du erakunde honetan programaren aplikazioarekin lotutako guztian erosketa eta kontratazio publiko berdea zuzendu eta koordinatzeko arduradun gisa.

Horretarako baimena ematen da (e)ko
 Akordioaren bidez.

Data eta tokia:

Sinadura:



Atxikitzeo inprimakia sinatu ondoren, hurrengo helbidera bidali beharko da:

IHOBE, Ingurumen Jarduketarako Sozietate Publikoa
 EAEko Erosketa eta Kontratazio Publiko Berdearen
 Programaren (2020) Idazkaritza Teknikoa

Helbide elektronikoa: compra.verde@ihobe.eus
Helbidea: Urkixo zumarkalea 36 - 6. solairua, 48011 - BILBAO

Informazio gehiago nahi izanez gero: Idazkaritza Teknikoa: Ihobe SA
 Tel.: 94-423 07 43
 compra.verde@ihobe.eus
 www.ihobe.eus

Datuen babesari buruzko oinarrizko informazioa:

Atxikimendu-eskaeran jasotako datu pertsonalak Ekonomia Zirkularren Arloko tratamendu-jardueran tratatu eta sartuko dira.

Arduraduna: Ingurumen Jarduketarako Sozietate Publikoa, IHOBE, S.A.

- **Xedea:** Euskadiko Erosketa eta Kontratazio Berdearen Programa 2030i atxikitzeo eskaeren kudeaketa eta programaren barruko ekintzen komunikazioa.
- **Legitimazioa:** Eskatzailearen baimena.
- **Hartzaileak:** Datuak programaren bultzatzaile diren Eusko Jaurilaritzako sailekin partekatuko dira, bai eta programari atxikitako gainerako eragileekin ere, Euskadin erosketa berdea sustatzen duten ekintzak eta esperientziak partekatze helburuarekin.
- **Eskubideak:** Datuak eskuratzeko, zuzentzeko eta ezabatzeko eskubidea duzu, bai eta informazio gehigarrian jasotzen diren beste eskubide batzuk ere.
- **Informazio gehigarria:** Datuak Babesteari buruzko informazio gehigarria eta zehatza gure webgunean kontsulta dezakezu: <http://www.udalsarea21.net/Paginas/Ficha.aspx?IdMenu=09e40489-90d3-4162-8e77-7e322eae4bb4&Idioma=es-ES>

Araudia:

[Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorra](#)
 3/2018 Legea, abenduaren 5ekoa, Datu Pertsonalak Babesteko eta Eskubide Digitalak Bermatzeko